



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko uztailaren 23an

57 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

—Oihangintza lanak egin ondoren, Milagroko “La Higuera” putzuak duen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Lodosako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (4. or.).

—Andosillako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (20. or.).

F saila:
GALDERAK

Oihangintza lanak egin ondoren, Milagroko “La Higuera” putzuak duen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak oihangintza lanak egin ondoren, Milagroko “La Higuera” putzuak duen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 10eko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 6an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Oihangintza-lanak egin ondoren Milagroko La Higuera putzuan egin diren jarduketari buruz José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion egindako galderak direla-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

Eginiko galderen arretagai diren txipoen aprobeitxamendua 0647 zenbakia eta 1996ko martxoaren 26ko data duen Ingurugiro Zuzendari Nagusiaren Erabakiaren bidez baimendu zen.

Lursail horretan berriro landatzeko, beharrezkoa izan zen, besteak beste, motzondoak kentzea; kasu honetan, horietako batzuk inguruko lursail batera garraiatu ziren, bertan lurperatuak izateko, eta beste batzuk putzuko eskuinaldeko ertzaren defentsa gisa ipiniak izan ziren.

1.- Aipatu putzuan egin diren lanak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimenarekin egin al dira?

Landaketa eginen den lursailetik motzondoak eramateko eta horiek putzuko eskuinaldeko ertzean ipintzeko lanak Milagroko Udalak bere kabuz egin ditu, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimekin gabe.

2.- Uste al du Nafarroako Gobernuak oihangintza-lan horiek ingurugiroan sortu dituzten kalteak garrantzizkoak direla? Baiezkoan zein ezezkoan: zergatik?

La Higuera putzua ez da Nafarroako Gobernuak martxoaren 16ko 72/1989 Foru Dekretuaren bitartez izendaturiko lekune natural bat, baina intereseko naturgune bat bada, arrantza egiteko lekua izateagatik eta bertan apoarmatu istilzaleak duen presentziagatik. Espezie horren populazioa Nafarroako hegoaldean putzu honen ezaugarriak dituzten zonetan aurkitzen da.

Putzuaren ertzean buruturiko jarduketari dagokienez, esan beharra dago egin direla lehen ertze-ko lurzorua osatzen zuen ibai-zati batean; hala ondorioztatzen da behinola Udalak egin zuen harri-lubeta osatzen zuten eta gaur egun putzuaren barnean dauden harrizko obretatik. Udalak eginiko lanen helburua ertza defendatzea izan da, alderdirik sakonenetan motzondoak jarriz. Zona horiek txipodia ureztatzeko ur-hartune gisa balio zuten; gaur egun ez dira erabiltzen, eta motzondoaren ezponda-lanak eta ondoren horien gainean lurra botatzeak une honetan ahalbidetu dute horiek berriro haztea; horrela, putzuaren ertze-ko landaretza ugaritzen ari da, eta higaduraren aurrerakada geraraztea lortu da, batetik, eta, bestetik, bizilekua haitzetan duen fauna guztiari geriza ematea.

3.- Nafarroako Gobernuak alderdi hori zaindu eta berreskuratzeko jarduketaren bat burutu behar al du? Zein jarduketa?

Printzipioz, ez da inolako jarduketarik aurrei-
kusten.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko
184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez
jakinarazten dizut hau.

Ingurugiro, Lurraldearen Antrolamendu eta
Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angu-
lo

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Lodosako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Lodosako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko azaroaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lodosako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Helburua (4. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (5. or.).
- IV. Iritzia (5. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean (5. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (6. or.).
- V. Finantza-egoerak. 1996ko aurrekontu-betetzeta (6. or.).
- VI. Azterketa, ondorioak eta gomendioak (8. or.).
 - VI.1. Aurrekontua betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (8. or.).
 - VI.2. Konpromisoak eta kontingentziak (9. or.).
 - VI.3. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (9. or.).
 - VI.4. Udalaren menpeko erakunde autonomoak (10. or.).
 - VI.5. Bestelako iruzkin orokorrak (10. or.).
 - VI.6. Intereseko alor bereziak (11. or.).
 - VI.7. Erakunde autonomoak (17. or.).

Eranskinak

1. Finantza-pasiboen azalpena (19. or.).
2. Organigrama (19. or.).

I. SARRERA.

Lodosa Lizarrako Merindateko herria da, 1996ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera 4.607 zuzenbidezko biztanle dituena.

Lodosako Udalak Montejurrako Ur Mankomunitatean hartzen du parte eta oinarritzko gizarte zerbitzuak Mendaviako Udalarekin batera kudeatzen ditu.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorritik, Kontuen Ganbarak bere jarduketa-programaren barruan sartu du Lodosako Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren aurrekontu-betetzeta fiskalizatzeko lana.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea (NTOFL), uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (NTAFL); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (TAOFL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakikeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaiei buruz gure iritzia ematea da:

a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen 1996ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, aplikagarri zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

d) Entitatearen egoera finantzarioa 1996ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere Jarduketa Programari jarraituz, Lodosako Udaleko 1996ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Udal honetan Zaharrentzako Egoitzaren Patronatua dago, 1988an erakunde autonomo gisa eratu zena eta han bizi direnen kuotekin eta Nafarroako Gobernuaren eta udalaren dirulaguntza txiki batzuekin finantziatzen dena.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari eta udalaren ondare-egoera eta egoera finantzarioa aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolerako alderdiak jorratu dira, eta gorabeheren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak egin dira, aurretik udalari bidalitako galdetegian agerian geratu ziren arazoaren arabera. Horretan Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu dira.

Gure lanak izan dituen mugak honako faktore hauek eragin dituzte:

- Udalean ezarri den kontabilitate sistema eskasa, batez ere inbentarioan eragiten duena.

- Udalaren kontabilitate sistemak aurrekontu-betetzearen jarraipena besterik ez du egiten (aurrekontu kontabilitatea); ez da kontabilitate orokorrik aurkezten udalak ekitaldi bakoitzaren bukeran duen ondare-egoera azaltzen duenik.

Txostenean udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu. Bi eranskin ere jarri ditugu, bat 1996ko abenduaren 31ko finantza-pasiboen zerrenda ematen duena (ikus 1. eranskina) eta bestea entitatearen organigrama agertzen duena (ikus 2. eranskina).

Zelaiko lana 1997ko ekainean egin zen.

Lodosako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu baitute.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Lodosako Udalaren 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu ditugu.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.1. UDALA

IV.1.1. Aurrekontuaren garapenari eta kitapenari dagokionean.

Gure ustez, 1996ko ekitaldiko Aurrekontuaren Kitapenak Lodosako Udalak fiskalizaturiko ekitaldian burururiko eragiketen multzoa era arrazoizko batean agertzen du, honako salbuespenekin:

- Dirusarreretan hainbat erresulta daude ekitaldi horretan huts egindakoetara aldatu behar zirenak (ikus V.1. atala)

- 1996ko ekitaldiko eragiketen mozketak desegokia, nahiz eta ez duen ukitzen udalak burururiko jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa.

IV.1.2. Ondare egoeraren azalpena.

Ondareari buruzko kontabilitaterik eta ondorioz, egoeraren balantzerik ez dagoenez, ez eta inbentariarik ere, ezin dugu iritzirik eman 1996ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare egoerari buruz.

IV.1.3. Legezketasuna.

Lodosako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera garrantzen da orokorrean.

IV.1.4. Finantza-egoera.

1996ko abenduaren 31n finantza-egoera garbia du Lodosako Udalak; hala mantenduko balitz aurreko ekitaldiko finantza-pasiboetara aurre egiteko moduan egonen litzateke.

Halaber, udal diruzaintzaren egoera egokia da epe motzera; autofinantziatzeko gaitasun nahikoa du eta hori azpimarratzekoa da; zorpetze maila zorpetzeko mugaz beherago dago, hau da, ez du

gainditzen ekonomikoki gainditu behar ez den muga.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

1996ko aurrekontu-betetzearen egoerak ongi islatzen ditu betetze horretan burutu diren eragiketa guztiak aztertzen ari den ekitaldi fiskalean. (Ikus VI.1. atala).

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, nahiz eta udalak egindako aurrekontuari buruzko informazioak ekitaldiko gastuak eta dirusarrerak modu egokian erregistratzen dituen, Kontuen Ganbarak uste du informazio ekonomiko eta finantzariorako gaurko sistema kudeaketa publikoaren beharretara

egokitu behar dela. Bide horretan daude txosten honetan bildutako gomendioak.

V. FINANTZA-EGOERAK: 1996KO AURREKONTU-BETETZEA.

Lodosako Udalak aurkeztu dituen finantza-egoerak, 1996ko ekitaldiari dagozkionak, ondoko hauek dira:

- 1996ko ekitaldiko aurrekontuen kitapenari dagoen dirusarrera eta gastuen egoera.
- Diruzaintza-gerakinaren egoera 1996ko abenduaren 31n.
- 1996ko abenduren 31ko diruzaintzako gerakinaren egoera.

Aurrekontuaren kitapena. 1996ko ekitaldia (pezetatan)

Lodosako Udala - Gastuak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	19.965.811	(11.176.181)	8.789.630	8.789.630	6.702.760	2.086.870	100	3
1. Langileen ordainketak	103.346.000	8.669.857	112.015.857	106.495.673	105.830.244	665.429	95	37
2. Ohiko ondasunak erostea	78.951.000	23.099.289	102.050.289	79.506.275	78.018.975	1.487.300	78	28
3. Korrituak	7.352.000	0	7.352.000	2.476.548	2.476.548	0	34	1
4. Ohiko transferentziak	23.193.000	1.363.000	24.556.000	20.016.044	18.417.252	1.598.792	82	7
6. Inbertsio errealak	37.275.000	24.166.080	61.441.080	51.343.945	29.474.690	21.869.255	84	18
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboaren aldaketak	17.200.000	(450.000)	16.750.000	5.000.000	5.000.000	0	30	2
9. Finantza-pasiboaren aldaketak	12.450.000	0	12.450.000	12.438.333	12.438.333	0	100	4
Guztira	299.732.811	45.672.045	345.404.856	286.066.448	258.358.802	27.707.646	83	100

Lodosako Udala - Dirusarrerak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	118.759.844	(1.147.622)	117.612.222	117.612.222		20.814.097	100	28
1. Zuzeneko zergak	39.700.000	0	39.700.000	43.948.763	40.429.518	3.069.245	110	10
2. Zeharkako zergak	21.900.000	3.000.000	24.900.000	27.561.568	24.980.917	2.580.651	111	7
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	38.709.000	2.663.000	41.372.000	40.500.264	39.562.509	937.755	98	10
4. Ohiko transferentziak	128.883.000	5.190.473	134.073.473	134.589.566	128.891.789	5.697.777	100	32
5. Ondare dirusarrerak	11.162.000	1950.000	13.112.000	11.587.757	11.558.691	29.066	88	3
6. Inbertsio errealak besterenganatzea	3.213.000	3.366.300	6.579.300	5.772.269	5.772.269	0	88	1
7. Kapital transferentziak	19.000.000	13.157.918	32.157.918	31.431.393	23.855.868	7.575.525	98	8
8. Finantza-aktiboen aldaketak	17.200.000	(450.000)	16.750.000	5.000.000	5.000.000	0	30	1
9. Finantza-pasiboen aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	398.526.844	27.730.069	426.256.913	417.553.802	376.849.686	40.704.116	98	100

Informazio iturria: Lodoso Udala

Lodosako Zaharrentzako Egoitza - Gastuak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	9.527.033	0	9.527.033	9.527.033	9.527.033	0	100	12
1. Langileen ordainketak	30.387.000	0	30.387.000	28.339.555	27.554.049	785.506	93	36
2. Ohiko ondasunak erostea	43.531.000	3.999.000	47.530.000	40.665.274	30.987.789	9.677.485	86	51
3. Korrituak	0	0	0	0	0	0	0	0
4. Ohiko transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	400.000	432.000	832.000	1.117.620	704.239	413.381	134	1
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboen aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboen aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	83.845.033	4.431.000	88.276.033	79.649.482	68.773.110	10.876.372	90	100

Lodosako Zaharrentzako Egoitza - Dirusarrerak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	1.847.384	0	1.847.384	1.847.384	0	1.847.384	100	3
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0	0	0	0	0
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0	0	0	0	0
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	69.842.000	0	69.842.000	65.952.973	65.952.973	0	94	86
4. Ohiko transferentziak	4.026.000	4.000.000	8.026.000	7.947.807	7.947.807	0	99	10
5. Ondare dirusarrerak	50.000	0	50.000	27.829	27.829	0	56	0
6. Inbertsio errealak besterenganatzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital transferentziak	400.000	431.000	831.000	1.117.620	831.216	286.404	134	1
8. Finantza-aktiboen aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboen aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	76.165.384	4.431.000	80.596.384	76.893.613	74.759.825	2.133.788	95	100

Informazio iturria: Lodoso Udala

1996ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinaren egoera

	Pezetak
Urteko aurrekontuan kobratzeko dauden eskubide aitortuak	19.890.019
Itxitako aurrekontuetan kobratzeko dauden eskubide aitortuak	20.814.097
Aurrekontuaz besteko eskubideak (ABIL)	-
Ken kobratzen zailak diren hartzekodunak	-
Urteko aurrekontuan ordaintzeko dauden betebeharrak aitortuak	(25.620.776)
Itxitako aurrekontuetan ordaintzeko dauden betebeharrak aitortuak	(2.086.870)
Aurrekontuaz besteko betebeharrak (ABIL)	(35.945.767)
Finantza-kontuetako hartzekoduna	154.436.651
Guztira	131.487.354

VI. AZTERKETA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian ondorioak eta udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko, horrela kudeaketan hobekuntza lortuz, egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak eman ditugu.

VI.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratortzen diren honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Lodosako Udalaren 1996ko ekitaldiko aurrekontua 1996ko martxoaren 27an onetsi zen.

Aurrekontuaren betetzea Osoko Bilkurak onetsi zuen 1997ko ekainaren 12an.

1996ko aurrekontuko dirusarreraren eta gastuen betetze maila egokia da, ehuneko 98 eta 83, hurrenez hurren.

1996ko aurrekontu-betetzeak, aurreko urteetako erresultak kenduta, 299.941.580 pezetako aitorturiko eskubideak agertzen ditu; aitorturiko betebeharrak, berriz, 277.276.818 pezeta egiten dute. Beraz, aurrekontu-betetzeak 22.664.762 pezetako superabita agertzen du.

Gastuen egoeran (ikus V. atala) aitorturiko betebeharrei buruzko kapitulurik garrantzikoena, langileen lansariena da, izan ere gastu guztien ehuneko 37 egiten baitu. Ondotik ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketa eta inbertsio errealek datoz, izan ere ehuneko 28 eta 18, hurrenez hurren.

Dirusarreraren egoeran (ikus V. atala) kapitulurik garrantzikoena ohiko transferentzia eta itxitako ekitaldien erresultena dira, izan ere ehuneko

32 eta 28ko aitorturiko eskubideak agertzen baitituzte, hurrenez hurren.

Gure azterketan zehar, agerian jarri da 1996ko aurrekontuaren kitapena ondoko zenbatekoetan aldatu behar zela:

a) Aurreko ekitaldiei zegozkien gastuak eta dirusarrerak bildu dituzenez, 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzeak, gutxi gora-behera, gastuetan 2.793.581 pezeta gehiago bildu ditu eta dirusarreretan 3.918.231 pezeta gehiago.

b) 1996ko ekitaldian sorturiko gastu eta dirusarrerengatik, urte horretako aurrekontuaren kitapean sartu ez direnak, aurrekontu horrek, gutxi gora-behera, 2.052.926 pezeta gehiago agertu behar zituen gastuetan eta 5.409.992 pezeta gehiago dirusarreretan.

c) Etorkizunari dagozkion dirusarrerak biltzeagatik, 1996ko aurrekontuaren kitapenak behar baino 605.000 pezeta inguru gehiago biltzen ditu.

d) Gure ustez huts egindakoetara aldatu behar ziren -batez ere zaharrak direlako- dirusarreraren erresultetan sarturiko kontusailengatik, kontusail horiek 3.193.000 pezeta gutxiago agertu behar zituzten.

Aurreko lerroaldeekin bat etorritik, honako hau gomendatzen da:

Udalaren aurrekontuen behin betiko onespenari buruz indarrean dagoen legedian ezarritako epeak betetzea bai eta ahal den eta azkarrena kitzatzea ere.

Gastuen eta dirusarreraren kontabilizaziok beren sortzapenaren arabera agertu behar du, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, kredituen muga-izaera errespetatuz edo/eta aurrekontu-aldaketak eginez, hala behar izanez gero.

Toki sektore publikorako kontabilitate plan orokorra ezartzea, hori udalak dauzkan langileekin egin ote daitekeen aztertuz; horretarako modurik ez badago, itun bat egin daiteke beste toki entitate-teren batekin. Plan hori 1998 urterako ezartzea aurreikusi da.

VI.2. KONPROMISOAK ETA KONTINGENTZIAK

VI.6.8. atalean azaldu den bezala, udal talde batek administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jarri du Lodosako Udalaren aurka, izan ere ikastola bat eraikitzeke lurzati bat zuzenean besterentzea erabaki zuen alkatetzaren dekretua zela eta.

Errekurtso honen aurkako autoa eman zen 1997an eta aurkatutako administrazio-egintzaren betetzea eten zen.

Gero, udalak erreguzko errekurtsoa aurkeztu zuen auto horren aurka, baina oraindik ez da eman hari buruzko erabakirik.

VI.3. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

Jaso dugun informazioaren arabera eta aintzat hartuta txosten honetan biltzen diren iruzkinak, udalak ondoko finantza egoera dauka 1996ko abenduaren 31n:

	Pezetak
Dirusarreraren erresultak	40.704.116
Diruzaintzako hartzekoduna	118.490.884
Gastuen erresultak	(27.707.646)
Superabita	131.487.354

Superabit hori, dena den, doitu egin beharko litzateke kobratzeko dauden 3.193.000 pezeta inguruko ordainagiritako akats eta ordainezintasunarengatik, aurreko VI.1. atalean zehaztu den bezala.

Beste aldetik, 17.206.534 pezetako zenbatekoa 1996ko abenduaren 31n udalak dituen fondoei dagokie, alegia udalak berak kudeatu eta Zaharrentzako Egoitzaren Patronatua finantziatzeko erabili behar dituztenei (ikus VI.6.10 atala).

Udalak finantza pasiboan aldaketari buruzko kapituluaren gastu gisa erregistratu du kiroldegian eta udal igerilekuetan egindako obrak finantziatzeko erabili den kredituaren polizan eskuragarri den gehienekoaren gutxitzea, alegia, 8.336.848 pezeta.

Kreditu hori erabili egin zen baina gaur egunean kitatuta dago, nahiz eta eskuragarri den gehieneko kopurua 91.705.333 pezetakoa izan.

Beste aldetik, diruzaintzaren atalean sartu diren 2.021.295 pezetako zenbatekoa udal hiltegi-ko kontuen kitapenari dagokio, lan horretan laguntzen duten harakinei ordaindu behar zaiena (ikus VI.6.3.1. atala).

Aurretik azaldutakoaren arabera, hona hemen finantza egoera behar bezala doitu:

	Pezetak
Superabita	131.487.354
Kobratzeko zailak diren saldoak	(3.193.000)
Zaharrentzako Egoitzaren Patronatua finantziatzeko emandako fondoak	(17.206.534)
Kreditu kontuan eskuragarri dagoen saldoa	(91.705.334)
Udal hiltegi-ko kontuaren kitapena	(2.021.295)
Guztira	17.361.191

• Ondoko koadroan 1996ko aurrekontuan aitorturiko gastu eta dirusarreraren osaketaren ehunekoak eman ditugu, betiere haien jatorriaren arabera:

Jatorria	Gastuak	Dirusarrerak
Ohiko eragiketak	75	86
Kapital eragiketak	25	14
Guztira	100	100

• Beste aldetik, jarraian eman ditugu 1996 eta 1995 urteetako aurrekontu-betetzeetatik atera ditugun ratio eta magnitude batzuk, udalak berak aurkeztuak:

	(milioi pezetatan)	
Ratio eta magnitudeak	1996	1995
Superabita	131	128
Aurrezki gordina (1)	52	35
Aurrezki garbia (2)	37	19

	(pezetatan)	
	1996	1995
Zergen bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko (3)	24.215	21.156
Inbertsioak per cápita	11.145	8.473
Finantza karga biztanle bakoitzeko	3.237	3.500
Gastu publikoa per capita	60.186	59.130

	(ehunekoa)	
	1996	1995
Zorpetze maila (4)	6	7
Zorpetzearen muga (5)	20	14

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak.

Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreraren eta funtzionamendu gastuen lehenbiziko kapitulutik bosgarren kapitulura eta gastuetako 1, 2 eta 4. kapituluak.

(2) Aurrezki gordina - finantza karga.

Finantza kargatzat hartu ditugu gastuen 3 eta 9. kapituluak

(3) Zergen bidezko dirusarrerak / eskubidedun populazioa.

Zergen bidezko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarretako 1etik 3. kapitulura bitartean.

(4) Finantza-karga / Ohiko dirusarrerak x 100

(5) Aurrezki gordina / Ohiko dirusarrerak x 100

Jarraian, aurreko ratio eta magnitudeak komentatuko ditugu, kontuan hartuta, betiere, 1995eko datuak ikuskatu gabe daudela. Dena den, datu horiek alderatuta, ondorio hauek atera ditugu:

- Bi ekitaldietan aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak positiboak dira, eta 1996an igo egin dira; horrek esan nahi du udalak bere baliabide propioak sortzen dituela dirusarrerak finantziatu ahal izateko.

- Zergen bidezko dirusarrerak eta biztanle bakoitzeko finantza karga eta biztanle bakoitzeko gastu publikoa antzekoak dira 1996an eta 1995ean; Nafarroako udalen 1995eko ekitaldiko batezbestekoaren parean daude -46.769 pezeta eta 11.078 pezeta eta 112.168 pezeta hurrenez hurren-. Dena den, alderaketa horietan aintzat hartu beharko litzateke elkartzeko-formularen bidez -nagusiki mankomunitateak- ematen diren zerbitzuen eragina.

- Per capita inbertsioak nabarmen handitu dira 1996an, izan ere 1995ean 39 milioi pezeta inbertitu ziren bitartean, 1996an 57 milioi pezetako inbertsioak egin ziren.

- Zorpetze maila zorpetzeko muga baino txikiagoa da; horrek bidea ematen du egoera ona izateko etorkizuneko ekitaldietan; horri ondoko lerroaldean zehazten dena erantsi beharko genioke:

a) 1. eranskinetik ondoriozta daitekeenez, maillegu eta diru-aurrerakinengatik hartutako zorra 6.145.155 pezetakoa da 1996ko abenduaren 31n, amortizatzen dagoen kredituaren polizari dagokion 92 milioiko kopuruaz gainera, izan ere 96-12-31n kitatuta baitzegoen.

b) 1996ko ekitaldiko finantza-karga ondoko zenbatekoetan eman da:

	Pezetak
Zorraren amortizazioengatik	12.438.333
Korrituengatik	2.476.548
Guztira	14.914.881

Zorraren amortizazioaren barrenean kredituaren gehienezkoaren gutxitzeari dagokion 8.336.848 pezetako zenbatekoa jarri da, aurretik azaldu den bezala.

Finantza zorrari dagokionez, gure iritziz handiak dira jasaten ari diren korrituen tasak merkatuaren oraingo baldintzekin konparatuta; hori dela eta 1997ko maiatzean birnegoziatu dira.

Ondorioz, udalaren egoera ekonomikoa ez bada aldatzen edo mantentzen bada, eta zorren mugaegunak aintzat hartuta, esan daiteke udalak hurrengo ekitaldietan pasibo horiei aurre egin ahal izanen diela.

VI.4 UDALAREN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK.

III. atalean Zaharrentzako Egoitzaren Patronatuarekin egiten den lanari buruz adierazitakoaz gainera, ez dago udalaren menpeko beste erakunde autonomorik. Esan digutenaren arabera, udalaren Osoko Bilkurak 1997ko maiatzaren 8an baimena eman zuen Patronatu horren nortasun juridikoa aldatzeari buruz behar diren azterlanak egiteko, izan ere egun batetik aurrera zerbitzu hori bertako kapitala besterik ez duen merkataritza sozietate gisa eman dadin.

VI.7. atalean zenbait azalpen osagarri eman ditugu Lodosako Zaharrentzako Egoitzaren Patronatuari buruz.

VI.5. BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

VI.5.1. Aurrekontu sistema eta barne kontrola

Udalak erabiltzen duen kontabilitate sistema aurrekontu kontabilitateari dagokiona da. Aurrekontua sailkapen ekonomikoarekin batera aurkeztu eta betetzen da.

Egindako azterketatik, ondoko puntu hauek azpimarratu behar ditugu:

- 1996ko aurrekontua betetzeko oinarriak badaude.

- Ez dago oinarritzko eragiketetan aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak zehazten dituzten kontabilitate- eta administrazio-ibilbide nagusiei buruzko prozedura idatzirik.

• Gastuak ez dira erregistratzen sortzen diren unean. Ondorioz, ohartu gara ez dela eragiketen mozketak egokia egiten; hori dela eta, gastuen eta dirusarreraren zenbait kapitulutan aurreko ekitaldi-koak eta urte berekoak erregistratzen dira eta, beste aldetik, urte bereko ekitaldiko zenbatekoak hurrengo urtean erregistratzeko geratzen dira. Zenbateko horiek ez dute garatutako udal jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa aldatzen; txostenean zehar zehaztu ditugu.

Aurreko lerroaldeetan zehaztu dugunaren araber, ondoko gomendioak eman ditugu:

Kontabilitateko oinarrizko prozedurak bilduko dituen eskuliburu bat prestatzea, bereziki ondokoak garatuko dituen:

a) *Prozedura bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak*

b) *Aldiro koadratzea eta egiaztapenak egitea.*

c) *Ixteko eragiketak*

d) *Saldoen azterketa.*

Gastuak eta dirusarrerak sortzapenari jarraituz kontabilizatzea aurrekontu betetzean; gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-egozketa jatorri ekonomikoaren arabera kontabilizatzea.

VI.5.2. Ondasun higiezinak eta komunalak. Udalaren inbentarioa.

Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentarioa ez da eguneratu.

Udal inbentarioa eguneratzea gomendatzen dugu, udalaren jabetzapeko ondasun guztiak behar bezala bil ditzan.

VI.6. INTERESEKO ALOR BEREZIAK

VI.6.1. Langileen soldatak

Hauek dira 1996 ekitaldiko langileen kapituluari buruzko xehetasunak:

	(pezetak)
	Kitaturiko betebeharrak
Oinarrizko ordainsariak	23.845.304
Bestelako sariak	8.340.599
Famili osagarria	1.710.121
Lan kontratupeko langileak	28.323.127
Gizarte aseguruak	10.042.151
Klase pasiboak	34.234.371
Guztira	106.495.673

Langileriaren kapituluak gastuetan aitorturiko guztizkoaren ehuneko 37 egiten duten aitorturiko betebeharrak biltzen ditu.

Laburbilduz, 1996ko abenduaren 31n, hauek dira udalean lanean ari diren langileak:

Funtzionarioak	9
Lan kontratadun finkoak	6
Aldi baterako lan kontratudunak	22
Guztira	37

Langile funtzionarioak honela banatuta daude:

Idazkaria	1
Diruzaina	1
Administrari ofiziala	1
Udaltzainak	5
Sanitarioa	1
Guztira	9

Diruzaintza udalak berak kudeatzen du.

Ez dago idatziz jarririk enplegatu bakoitzak zer eginkizun dituen, salbu askotariko lanak egiten dituzten funtzionarioen kasuan. 2. eranskinean, organigrama gutxi gora-beherako bat eman dugu.

Arlo honetan datuak sortzeko eta kontabilizatzekeo jarraituriko prozeduren azterketa eginda, ondokoa geratu da agerian:

• Enplegatu bakoitzari buruzko agiri guztiak bil-tzen dituzten espediente banakatuak daude.

• Udalarekin lan harremanen bat daukaten pertsona guztiak kasuan kasuko kontratua sinatu dute, eta plantilan sartzeko indarra duen legediari jarraitu zaio. Musika Eskolako irakasleei dagokienez, kontratuak INEMen bidezko enplegu eskaintza orokorraren bidez egiten dira.

Aurreko lerroaldetako iruzkinei jarraituz, ondoko gomendioak eman nahi ditugu:

Enplegatu bakoitzaren eginkizunak idatziz ematea.

Enplegatu bakoitzari buruzko espediente banakatua egunean mantentzea.

VI.6.2 Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketak

Erosketek eta zerbitzuengatikoko gastuek guztizko gastuaren ehuneko 28 egiten dute, ondoko azalpenean ikusten den bezala:

	(pezetak)
	Kitaturiko betebeharrak
Bulego gastuetarako ohiko zenbatekoa	6.411.486
Higiezinetakoa gastuak	12.638.567
Zerbitzuen funtzionamendurako gastu bereziak	55.214.735
Inbertsioen kontserbazioa eta ohiko konponketak	1.871.158
Altzariak, bulegoko ekipoak eta beste	2.295.458
Bestelako gastuak	1.074.871
Guztira	79.506.275

Prozeduren eta kontabilizaturiko zenbatekoen azterketa eginda, ondorio hauek atera ditugu:

Zerbitzuen funtzionamendurako gastu bereziek artikulu horretako gastu guztien ehuneko 57 egiten dute. Hona hemen zenbait xehetasun:

	Pezetak
Argiteria publikoa	5.748.278
Zerbitzuak jasotzeko kontratuak	21.238.911
Musika banda	4.388.780
Herriko festak	19.052.644
Besterik	4.786.122
Guztira	55.214.735

• Hona hemen zerbitzuak jasotzeko kontratuei buruzko atalaren zenbait xehetasun:

	Pezetak
Dirubilletako agentea	2.254.791
Katastroaren mantenimendua	1.274.270
Hirigintzako aholkularitza	1.809.570
Parke eta lorategien mantenimendua	5.382.176
Kiroldegiaeren mantenimendua	3.502.192
Eraikinak garbitzea	4.647.084
Gazteentzako enplegua bilatzea	1.161.574
Besterik	1.207.254
Guztira	21.238.911

• Hona hemen Musika Bandari buruzko artikuluen zenbait xehetasun

	Mila pezetatan
Zuzendaritza	807.300
Musikariak	3.233.850
Tresnak eta beste	347.630
Guztira	4.388.780

VI.6.15. atalean Musika Bandari buruzko bes-telako iruzkin osagarri batzuk jaso dira.

• Zerbitzuen funtzionamendurako gastu berezien kapituluko herriko festei buruzko artikuluan festak antolatzekeo zenbait entitateri emandako dirulaguntzak sartu dira, 695.000 pezetatan. Gastu horren dokumentazio-euskarri bakarra alka-teak emandako ordainketa agindua da.

• Herriko festetan enpleguriko langile sanitarioei ez zaie inolako kontraturik egin; haien lantsarrietan, dena den, PFEZaren atxikipena egin da.

• 1996ko ekitaldian eragiketen mozketak desegokia egin da. Gure azterketan oharaturiko kontzeptuen gutxi gora-beherako zenbatespenak 2.252.100 pezeta islatzen ditu 1996an, aurreko ekitaldiei dagozkienak, eta 1996 ekitaldiari dagoz-kion 2.052.926 pezeta kontabilizatu dira 1997an.

Aurreko lerroaldean zehazturikoaren arabera, hona gure gomendioa:

Osoko Bilkuraren erabakiz edo alkatetzaren ebazpenaren bidez eman beharreko dirulaguntzak onestea, baita zenbateko txikia dutenak ere.

VI.6.3. Inbertsio errealak.

Kapitulu honek 51.343.945 pezetako onartuta-ko betebeharrak biltzen ditu; aurrekontuaren bete-tze osoaren ehuneko 18 dira. Haien betetzeak behin betiko aurrekontuaren ehuneko 84 egin du.

Hona hemen 1996ko ekitaldian eginiko inber-tsioei buruzko zenbait xehetasun:

	(pezetak)
Kitaturiko obligazioak	
Udal hiltegia egokitzea	19.139.224
Kaleak urbanizatzea	24.515.705
Udal pilotalekua	756.000
Haur parkea	2.224.886
Kiroldegia	3.273.998
Ibilgailuak	1.434.132
Guztira	51.343.945

VI.6.3.1. Udal hiltegia egokitzea.

1994 eta 1995 urteetan udalak zenbait obra burutu zituen udal hiltegian 1995eko abenduaren 31tik aurrera indarra izanen zuen arau komunitaria egokitzeke.

Arau horrek ezarritako baldintza guztiak ez zirela betetzen argi ikusirik, beharrezkoa da hiltegia egokitzea.

Hori dela eta, udalaren Osoko Bilkurak 1996ko uztailean udalaren eta harakin talde baten arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzea onetsi zuen, hain zuzen ere udal hiltegi berritze obrak finantzatzeko.

Ondokoak dira lankidetzaz hitzarmen horretan aurreikusitako alde nagusiak, 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera indarra izanen zutenak:

- Udalak zentroaren titulartasuna mantenduko du eta berritze obrak bultzatuko ditu.

- Hiltegia egiten diren inbertsioen gastu guztiak udalak hitzartuko ditu, lankidetzaz arituko diren harakinek zenbateko osoa ordaindu eta gero.

- Inbertsio berriz gainera, lankidetzaz arituko diren harakinek aurretik egindakoak era ordainduko dituzte, udalak obra berriak egiteko Foru Komunitateko Administrazioetik lortzen duen dirulaguntzaren zenbatekoan muga jarrita.

- Ohiko gastuak udalak ordainduko ditu zuzenean. Kasuan kasuko tasen zehazpenak ere udalak onetsiko ditu.

- Hiruhilekoan behin likidazio bat eginen da. Horren arabera, aldi horretan ordaindutako ohiko gastu guztiak batu eta aldi horretan bertan egindako dirusarrerak kenduta, gelditzen dena proportzionalki banatuko da harakin lankideen artean, udal kontabilitatean kontrolerako eramanen den kontu lagungarri baten arabera.

Behin egindako ekarpen guztiak ordaindu ondoren, horretarako behar diren urteak behar direla, aldi batean gastuei aurre egiteko eta dirusarrerak edukitzeko sistema bera mantenduko da, hain zuzen ere egutegi jakin baten arabera harakin lankideei gelditzen den dirua ordaindu ahal izateko: horrela epe osoa iraganik, udalak ez du batere konpromisorik izanen.

- Edozein arrazoi dela medio hiltegiaren jarraiera eten egiten balitz itzulketa horiek bukatu baino lehen, udalak ez du zertan ordaintzeko daudenak ordaindu.

Obra honi buruzko dokumentazioa aztertu ondoren, ondokoak ohartu ditugu:

- Hasierako aurrekontua 18.206.318 pezetatan jarri zen, BEZa barne; presako prozeduraren bidezko esleipen zuzena erabili zen, kontratista batzuei eskaintza egin ondoren.

- Behin betiko esleipena 1996ko urriaren 17an egin zen, eta zenbateko txikiena ezarri zen esleipen irizpide gisa.

- Obren behin-behineko jasoketari buruzko akta 1996ko abenduaren 26koa da.

- Kitaturiko obligazioek ehuneko 12ko desbideraketa dute esleituriko zenbatekoekin alderatuz gero.

- Hiltegi 1996ko ekitaldiko kontuen kitapenean 2.021.295 pezetako superabita dago. Zenbateko hori diruzaintzako diru gisa agertzen da aurrekontuaren kitapenean eta udalak 1997an ordaindu beharreko obligazio bati dagokio.

Ondokoak izan dira hiltegi obrak finantzatzeko egin diren ekarpenak, kapital transferentzien kapituluan bildu direnak (ikus VI.6.9.)

	Pezetak
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	2.666.142
Harakinen ekarpena	18.700.000
Guztira	21.366.142

VI.6.3.2. Kalea urbanizatzea.

Obra honi buruzko dokumentazioa aztertu ondoren, ondokoak ohartu ditugu:

- Kontusail honi jarri zaizkio INEMen bidez kontraturiko langileen gastuak, bai eta obrak egiteko erabili diren materialak ere. Hona hemen xehetasunak.

	Pezetak
Lansariak	11.100.059
Materialak	13.415.646
Guztira	24.515.705

- Ez da eraikuntza materialen hornidurak esleitzeko inongo prozedurarik erabili.

- Obra hauetan izandako langile-gastuak hein batean Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu (9.818.766 pezeta inguru, kapital transferentzien kapituluan erregistratutakoak) (ikus VI.6.9. atala)

VI.6.3.3. Udal pilotalekua.

Izenburu horren pean pilotalekua birmoldatzeko proiektuaren erredakzioarengatik ordaindutako lansaria sartu dira.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak berretsi duenez, 1996an 9.000.000 pezetako dirulaguntza eman zaio pilotalekuan egokitzeko obrak burutzeko. Dirulaguntza hori kobratu gabe dago eta ez da erregistratu 1996ko abenduaren 31ko kontabilitatean. Esan diguten bezala, obra hori 1997ko aurrekontuan sartuko da eta esleipen prozesuari ere urte horretan emanen zaio hasiera.

VI.6.3.4. Haur parkea.

Obra honi buruzko dokumentazioa aztertu ondoren, ondokoak ohartu ditugu:

- Espedientean ez da jaso administrazio-baldintzen plegua dagoenik

- Hiru kontratistaren eskaintzak eskatu ziren eta lanak horietako bati eman materialen segurtasun eta iraupenarengatik eta lanaren modernotasun eta estetika kontuengatik.

Aurreko lerroaldeetan inbertsioei buruz azaldu-takoa kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

Kontratuari buruzko Foru Legea eta zerbitzu publikoen kontratazioa arautzen duten gainerako arauak estu betetzea, obra espedienteek behar diren egiaztagiri guztiak bil ditzaten.

Barne kontroleko tresnak ezartzea, inbertsioen betetze egokia bermatzeko, kontutan hartuz haien kudeaketa zuzena galdatzen duten oinarriko prozedura eta legeak, bai ikuspegi ekonomiko eta razionaletik, bai legezotasun printzipioari men egiteari dagokionean ere.

VI.6.4. Gastuetako bestelako kapituluak**a) Korrituak**

1996ko gastuen aurrekontuaren kitapenean 1995eko ekitaldian sorturiko zenbait gastu bildu dira (541.481 pezeta).

b) Ohiko transferentziak.

Gastuen aurrekontuaren alor honetan egindako azterketatik abiatuta, agerian jarri da kiroletako begiraleen eta kultur jardueretako irakasleen lan egoera erregularizatu beharra dagoela, behar diren langileen kontratuak edo zerbitzuak emateko kontratuak eginez.

VI.6.5. Zergen bidezko dirusarrerak

1996ko aurrekontuaren kitapenaren arabera, zergen bidezko dirusarrerak ondoko betetzea izan dute:

Kapitulua	(pezetatan)		
	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa
Zuzeneko zergak	39.700.000	43.498.763	40.429.518
Zeharkako zergak	24.900.000	28.561.568	24.980.917
Tasak eta bestelako dirusarrerak	41.372.000	40.500.264	39.562.509
Guztira	105.972.000	111.560.595	104.972.944

Zergen bidezko dirusarrerak udalaren dirusarrerara guztien ehuneko 40 egiten dute.

Ondoko koadroan kapitulu horien betetzea eman nahi izan dugu, zergagaien arabera sailkatuta:

Zergaia	Kitaturiko eskubideak (pezetak)	Kitaturiko guztizkoaren %
Landa kontribuzioa	4.369.838	4
Hiri kontribuzioa	25.153.006	23
Lizentzia fiskala	13.975.919	12
	43.498.763	39
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	10.029.848	9
Zirkulazio zerga	15.442.708	14
Telefonicaren kanona	2.089.012	2
	27.561.568	25
Hiltegiko tasa	3.635.582	3
Iberdrolaren tasa	3.939.814	4
Igerilekuak	12.322.955	11
Hirigintza lizentziak	2.630.082	2
Hirigintza probetxamenduak	4.772.932	4
Bestelako tasa eta dirusarrerak	13.198.899	12
	40.500.264	36
Guztira	111.560.595	100

Zenbateko eta tasa horiek udalak onetsitako ordenantzen arabera biltzen dira.

Aplikatzeko diren kontrol prozedurak eta alor honetan kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, honako hau ohartu dugu:

- Kontzeptu horiei buruzko eragiketen mozketak ez da behar bezala egin. Buruturiko lanaren arabera, hona hemen kontzeptu horien gutxi gorabeherako zenbatespena:

1. 1995 urtean sortu eta 1996ko kontabilitatean erregistratu direnak:

	Pezetak
Telefónicaren kanona	512.217
Iberdrolaren kanona	851.756
Ordainketak	634.281
Zirkulazio zergak	76.027
Guztira	2.074.281

2. 1996an sortu eta 1997ko kontabilitatean erregistratu direnak:

	Pezetak
Telefónicaren kanona	521.780
Iberdrolaren kanona	918.387
Guztira	1.440.167

- Dirubilketako agenteari ez zaio behar den fidantza eskatu, izan ere dirusarrerak udalaren beraren izenean dagoen kontu batean egiten direlako eta Dirubilketako agenteak ez duelako modurik diru hori erabiltzeko.

Itxitako ekitaldien erresulten eta urteko ekitaldiaren ondorioz, dirusarrera fiskaletatik heldu diren zenbatekoak erregistratu dira. Egindako azterketatik abiatuta, gure ondorioa da haietako batzuk oso zaharrak direla eta horregatik kobrazinak; horren ondorioz, akats egindako kontusailetara aldatu beharko lirateke (3.193.000 pezeta inguru egiten dute, guztira).

Gure lana burutu ondoren, udalak saldoak aztertzeari ekin zion.

Aurreko lerroaldeetan komentatutakoaren araber, hona gure gomendioa:

Kobratzeko dauden zenbatekoak kobratu ote daitezkeen azterketa erabatekoak egitea, aldiro.

Eragiketen mozketak ekitaldiko sortzapenei egokitzea.

VI.6.6. Ohiko transferentziak.

Ohiko transferentziak kitaturiko eskubideen 134.589.566 pezetako zenbatekoa biltzen dute. Dirusarrera guztien ehuneko 32 egiten dute. Zenbateko horrek kontzeptu hauek biltzen ditu, batez ere: Funtzionarioen Montepioa, Toki Ogasunen Lurraldeko Fondoaren partehartzea, lurralde-erakundeen bestelako ohiko dirulaguntzak eta Estatuko zergen partehartzea.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren ondokoa ohartu dugu atal honetan:

- Dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean, 1995ean eta aurrekoetan sorturiko zenbait dirusarrera bildu dira; beste aldetik, ez dira sartu 1996ko ekitaldian sorturiko beste dirusarrera batzuk.

Burutu dugun lanari jarraituz, hona hemen kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespena:

1. 1995eko ekitaldian sortu eta 1996ko kontabilitatean erregistratuak:

	Pezetak
Estatuko zergetan partehartzea	1.073.950

2. 1996ko ekitaldian sortu eta 1997ko kontabilitatean erregistratutakoak:

	Pezetak
Estatuko zergetan partehartzea	723.857
Dirulaguntzen ordainketa	(518.004)
Guztira	205.853

VI.6.7. Ondare dirusarrerak.

1996ko dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean 1997ko ekitaldian sortutako zenbait dirusarrera erregistratu dira, 605.000 pezeta ingurukoak, hein batean 96/97 ikasturteko Musika Eskolako matrikulei dagozkienak. Aintzat hartzen bada dirusarrera horiei dagozkien gastuak 1997ko aurrekontuan erregistratuko direla, uste dugu egokiena izanen litzatekeela dirusarrera horiek dagokien ehunekoan ikasturteko bi ekitaldietan erregistratzea, edo bestela diruzaintzako gerakinaren egoeran erregistratzea.

VI.6.8. Inbertsio errealak besterentzea.

Kitaturiko eskubideen 5.722.269 pezetako zenbatekoa egiten dute, aurrekontu betetzearen ehuneko bat, alegia.

Epe luzatua duten salmentei dagokienean, gure azterketaren bidez egiaztatu ahal izan dugu udalaren irizpidea dela ekitaldiko dirusarrera gisa hartzea ekitaldi bakoitzean kobratutako parteak. Hori dela eta, eragiketen mozketak desagokia egin da 1996ko ekitaldian, hain zuzen ere 1995 urteari zegokion 770.000 pezeta inguruko zenbatekoa 1996 urtean erregistratu delako, eta 1996 urteari zegokion 4.136.300 pezetako zenbatekoa etorkizuneko ekitaldietan erregistratuko direlako.

Gure gomendioa da dirusarrerak osorik erregiratzea eskubidea sortzen den urteko aurrekontuan, hau da, ondasuna saltzen den unean. Ekitaldian kobratzen den parte ekitaldiko kobrantza gisa hartuko da eta luzatutako epeari dagokiona kobratzeko geratuko da eta itxitako aurrekontuko kobrantzen erresulterei gehitu beharko zaie.

Beste aldetik, 1996 urtean zehar udalak lurzati bat zuzenean besterendu du ikastola bat eraikitzea. Horren prezioa 6.732.600 pezetakoa izan da eta horietatik 3.366.300 pezeta kobratu ditu. Gainerakoari dagokion abala ere jaso du. Gero udal talde batek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du salmenta hori erabaki zuen alkatezaren dekretuaren aurka, izan ere uste zutelako haren edukia ez zela zuzenbidezkoa; salmenta horren erabakia etetea eskatu zuten.

1997ko apirilaren 23an Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzibideetarako sala autoa eman zuen aurkatutako administrazio-ekintza eten zedin. 1997ko maiatzaren 7an erreguzko errekurtsoa aurkeztu zen auto horren kontra, baina ez da oraindik horri buruzko epairik eman.

VI.6.9. Kapital transferentziak

Kapital transferentziek 31.431.393 pezeta egiten dute, hau da, dirusarrera guztien ehuneko zortzi; obrak egiteko dirulaguntzak biltzen dituzte. Hona hemen dirulaguntza horiei buruzko zenbait xehetasun:

	(pezetak)
	Kitaturiko eskubideak
Harakinek hiltegirako egindako ekarpenak	18.700.000
Hiltegia berritzea (Nafarroako Gobernu)	2.666.142
Enpleguaren sustapena	9.818.766
Hirurteko plana (93-95)	246.485
Guztira	31.431.393

Enplegua sustatzeagatik dirulaguntzaren banean 372.328 pezeta inguruko zenbatekoa ageri da, dirulaguntza horren diru-ateratze bati dagokiona eta 1997ko ekitaldian itzuli beharko dena, ez delako bidezkoa.

VI.6.10. Finantza-aktiboen aldaketak.

Aurrekontuetako atal hauek, bai gastuek bai dirusarrerak, hain zuzen ere 16.750.000 pezetako behin betiko aurreikuspena dutenek, 5.000.000 pezetako betetzea izan dute eta aurrekontuko

gastu eta dirusarrera guztien ehuneko 2 eta 1 egiten dute hurrenez hurren.

Nafarroako Gobernu Toki Administrazioiko Departamentuko zerbitzu teknikoaren gomendio bati jarraituz, 1993 urtera arte partikularren dohaintzetatik heldu eta Zaharrentzako Egoitzarekin loturiko betebeharrak betetzeko xedea zuten kontu lagungarri batzuetan zeuden fondoak biltzen ditu. Saldoa, batez ere, partikularren dohaintza zuzenetatik heldu da eta neurri txikiagoan helburu berarekin dohaintzan emandako finken errentetatik.

1996 urtean 5.000.000 pezetako zenbatekoa transferitu zaio soilik Zaharrentzako Egoitzaren Patronaturari, bera finantziatzeko. Patronatuak diru hori itzuli dio 1996ko ekitaldiaren bukaeran udalari.

Beste aldetik, zenbait inbertsio egin dira patronatuan fondo horien kargura. Hauxe izan da fondo horren mugimendua 1996 urtean:

	(pezetak)
	Kitaturiko eskubideak
Hasierako saldoa	17.200.000
Sarrerak	128.268
Irteerak	(591.216)
Atal honetan, guztira	16.737.052
Finantziario fondoak	(5.000.000)
Guztira	11.737.052

11.737.052 pezetako alde hori 1996 urtean udalaren esku egon da eta 469.482 pezeta inguruko etekina eman dute, hori ere dirusarrera gisa hartu dena.

Horrenbestez, 17.206.534 pezetako saldoa dago 1996ko abenduaren 31n udalak bere diruzaintzan izan duena eta Zaharrentzako Egoitzaren Patronatuaren ohiko funtzionamendurako kudeatu eta erabiliko direnak.

VI.6.11. Diruzaintza

Alor honetan egindako berrazterketa abiaburu hartuta, zenbait akats ikusi ditugu erabilitako prozeduretan; akats horiek zuzendu egin beharko liriteke, betiere ondoko gomendioei jarraituz:

Idatziz zehaztu eta idaztea haren funtzionamenduari buruzko arau guztiak.

Finantza entitateetan edukitako saldoak erregularizatzea, izan ere informazioa eskatu genien entitateen berrespena aurrekontuaren kitapenean ageri den diruzaintzako saldoa baino handiagoa delako.

Diruzaintzako berdinkatzeak egitea finantza entitateetan edukitako fondoekin, hilabetean behin. Berdinkatze horiek udal fondoetako erantzuleak dokumentatu eta sinatu beharko ditu.

VI.6.12. Aurrekontuko Balore Independente eta Lagungarrien Liburua (ABIL)

ABILen jasoko dira kontabilitatez kanpoko izaera duten eragiketa guztiak eta udalarentzat gas turik nahiz dirusarrerarik ekartzen ez dutelako aurrekontuan jasotzerik ez dauden balore edo fondo guztiak, hain zuzen ere udala dirubiltzaile edo diruzain hutsa delako.

Liburu horretan erregistraturiko kontzeptu eta zenbatekoak berraztertu ondoren, ohartu gara udalak soilik eragiketa haiei buruzko idazpenak erregistratzen dituela bertan.

Liburu horren zertarako ikusita, ekitaldian sorturiko emaitzak diruzaintzari dagozkio.

VI.6.13. Hirigintza

Udalak Arau Subsidiarioak baditu eta katastroak 1986an (hiri katastroa) eta 1988an (landa katastroa) eguneratu eta onetsi ziren.

Udalak ez du sortu Lurzoruaren Udal Patronatua.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera, gogorarazi nahi dugu Lurzoruaren Udal Ondarea eratu behar dela eta bertan sartu behar direla hirigintza planeamenduak lurzoru urbanizagarri edo lurzoru urbanizagarri programatu gisa sailkaturiko ondarezko ondasun guztiak. Edozein kasutan ere, ondare horretan sartuko dira lagapenen –lurzoruak edo eskudirua-, edozein modutako desjabetzaren eta tanteatze eta atzera-eskuratzearen ondorioz eskuratutako ondasun guztiak.

Gure gomendioa da udal lurzoruaren ondareari buruzko inbentarioa egitea.

VI.6.14. Musika banda.

Lodosa herriko musika banda ez da organo autonomo gisa eratu ez eta udalak parte duen sozietate publiko gisa ere. Hala ere, banda hori udalaren fondoan kargura ordaintzen da eta, gainera, udalak entseiuak egiteko lokala eta musika tresnak uzten dizkio.

Ez da inongo harreman juridikorik eratu udalaren eta banda horretako kideen artean, ez eta zerbitzuak emateko edo lan egiteko kontraturik sinatu edo inor ezertarako izendatu ere. Udalak ordainketak egiten dizkio banda horri gastuaren egiaztagiririk (nomina/ordainagiria) egin gabe ere.

Gure gomendioa da deskribaturiko egoera hori erregularizatzea, udalaren eta musika bandaren arteko harreman juridikoa argituz, betiere indarra duen legediari jarraituz.

VI.7. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Udalaren menpeko erakunde autonomo bakarra Lodosako Zaharrentzako Egoitzaren Patronatua da.

Erakunde autonomo gisa eratu zen eta helburu gisa Lodosako Zaharrentzako Egoitza kudeatzea du, 1988ko irailaren 14an onetsi ziren haren estatutuen bigarren kapitulutik ondoriozta daitekeen bezala.

Erakunde horrek berezko nortasun juridiko publikoa du eta gaitasun osoa bere helburuak betetzeko xedez jarduteko. Patronatuak Lodosan du egoitza soziala eta mugagabeko iraupena du.

Ondotik azaldu ditugu erakunde autonomo horri buruzko zenbaki ekonomiko adierazgarriak:

	(pezetak)	
	1996	1995
Aurrekontuetako gastuak, guztira	88.276.033	86.701.501
Kitaturiko obligazioak, guztira	79.649.482	78.808.539
Aurrekontuetako dirusarrerak, guztira	80.596.384	77.082.570
Kitaturiko eskubideak, guztira	76.893.613	71.843.805
Aurrekontu-defizita	2.755.869	6.964.734
	(ehunekoak)	
	1996	1995
Gastuen aurrekontua betetzea, %	90	91
Dirusarrearen aurrekontua betetzea, %	95	93

Langileen kopurua, 10, berdin izan da 1996an eta 1995ean.

Alor honetan egindako lanari buruz, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

- 1996ko aurrekontua egitean ez dira aurreko urteko diruzaintza itxitako ekitaldien erresultei buruzko kapituluan.

- Patronatua egoiliar dituenen kuotekin eta Nafarroako Gobernuaren eta udalaren dirulaguntza txiki batzuekin. Halaber, Udalak Patronatuaren funtzionamendurako fondo batzuk kudeatzen ditu (ikus VI.6.10 atala)

- Patronatuak, eskuz egindako ondasunen inbentarioa badu ere, ez du burutu zenetik eguneratu.

- Itxitako ekitaldietako dirusarreraren erresultetan 1.846.984 pezetako zenbatekoa dago 1990 eta 1992 urteei dagokiena eta kobratzeko zaila izanen dena.

- Patronatuan mantendutako kaxetako batean zenbaketarik ez da egiten.

- Garbiketa eta jangelako zerbitzuak kontratazeko orduan ez da esleipen prozedurarik erabili.

Patronatuaren estatutuetako 10. artikulutik ondoriozta daiteke urtero ekitaldiko egoeraren balantzea eginen dela eta balantze hori Patronatuaren Gobernu Batzarrak aurkeztuko diola Udalarari azken horren azter eta fiskaliza dezan. Balantze hori azterturik, agerian jarri da aurrekontuaren kontabilitatea bat datorrela balantze horrekin; hala

ere, 522.000 pezeta daude aurrekontu-dirusarreraren erresultetan sartu eta balantzean kobratzeko kontu gisa agertzen ez direnak.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona hemen gure gomendioak:

Ondasunen inbentarioa eguneratzea, Patronatuaren jabetzapeko ondasun guztiak bil ditzan.

Kontrataei buruzko Foru Legea eta zerbitzu publikoen kontratazioari buruzko gainerako arauak hertsiki betetzea.

Aurrekontu-kontabilitatearen eta egoeraren balantzearen arteko zenbaketak eta egiaztapenak egitea aldiro.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINAK**1. ERANSKINA. FINANTZA-PASIBOEN AZALPENA 1996KO ABENDUAREN 31N.**


(pezetatan)

Mailegua/aurrerakina	Zertarako	Hasierako zenbatekoa	Interesa, %	Mugaeguna	96-12-31n ordaintzeko dagoen kapitala
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Kultur etxea	7.799.000	14	1998	2.734.249
Nafarroako Aurrezki Kutxa (1)	Igerilekua eta kiroldegia	108.379.030	CECA - 0,25 MIBOR + 1	2007	91.705.333
Banco de Crédito Local	Herriko argiteria	3.499.527	12	1997	524.391
Banco de Crédito Local	Kaleetan zorua jartzea	8.263.646	11	1997	968.416
Banco de Crédito Local	Zeharkalea egokitzea	2.562.262	11	1999	1.072.417
Banco de Crédito Local	Udaletxea	6.522.052	12	1997	259.285
Banco de Crédito Local	Ikastetxeko patioan zorua jartzea	1.309.785	11	2000	586.397
					138.335.302
					6.145.155*

* Ez ditugu batu N.A.K.ko 91.7 milioiko kreditua, urte bukaeran kitaturik zeudelako.

OHARRA: 96-12-31n ordaintzeko dagoen kapitalak ez du barne hartzen Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Departamentuaren baso birlindaketak egiteko 13.005.322 pezetako aurrerakina. Eragiketa horrek ez du interes tasarik batere sortzen eta ez du mugaegun jakinik.

(1) Kreditu kontua

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1996KO ABENDUAREN 31N.

F: Funtzionarioa

LF: Lan Kontratadun Finkoa

Andosillako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Andosillako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Andosillako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (20. or.).
- II. Helburua (20. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (21. or.).
- IV. Iritzia (21. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean (21. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (21. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (22. or.).
 - IV.4. Ekonomia- eta finantza-egoera (22. or.).
 - IV.5. Aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (22. or.).
- V. Finantza-egoerak (22. or.).
- VI. Azterketa, ondorioak eta gomendioak (23. or.).
 - VI.1. Aurrekontua betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (23. or.).
 - VI.2. Kontingentziak (25. or.).
 - VI.3. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (25. or.).
 - VI.4. Aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (26. or.).
 - VI.5. Bestelako iruzkin orokorrak (26. or.).
 - VI.6. Intereseko alor bereziak (27. or.).

Eranskinak

- 1. Finantza-pasiboen azalpena (37. or.).
- 2. Organigrama (37. or.).
- 3. Ekonomia- eta finantza-egoeraren azterketa (38. or.).

I. SARRERA.

Andosilla Lizarrako epai-barrutiko herria da, 1996ko maiatzaren 1eko erroldaren arabera 2.511 zuzenbidezko biztanle dituena.

Andosillako Udalak Montejurrako Ur Mankomunitatean hartzen du parte, izan ere uren, saneamenduaren eta hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamenduaren ardura duena, bai eta San Adriángo oinarritzko gizarte zerbitzuen mankomunitatean ere.

Nafarroako Kontuen Ganbarak beste fiskalizazio txosten bat egin zuen udal honi buruz, hain zuzen ere 1990eko ekitaldian.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorritik, Kontuen Ganbarak bere jarduketa-programaren barruan sartu du Andosillako Udalaren kudeaketa ekonomikofinantzariora eta 1996ko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren aurrekontu-betetzea fiskalizatzeko lana.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakiokkeen legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea (NTOFL), uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (NTAFL); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (TAOFL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakiokkeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaietarako buruz gure iritzia ematea da:

- a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen 1996ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, eskuarki aplikatzen zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.
- c) Udalaren jarduera ekonomikoa eta finantzariora legezketasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertea.
- d) Entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera.

e) Aurreko txosteneko gomendioen jarraipena.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere Jarduketa Programari jarraituz, Andosillako Udaleko 1996ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari eta udalaren ondare-egoera eta egoera finantzarioa aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdiak jorratu dira, eta gorabeheren araber beharrezkotzat jo ditugun frogak egin dira, aurretik udalari bidalitako galdetegian agerian geratu ziren arazoan araber. Horretan Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu dira.

Udalan ezarri den kontabilitate sistema eskasa, batez ere inbentarioan eragiten duena. Udalaren kontabilitate sistemak aurrekontu-betetzearen jarraipena besterik ez du egiten (aurrekontu kontabilitatea); ez da kontabilitate orokorrik aurkeztu udalak ekitaldi bakoitzaren bukaeran duen ondare-egoera azaltzen duenik.

Gure lanak izan dituen mugak honako faktore hauek eragin dituzte:

- BEZari buruzko zerga-aitorpenek akatsak dituzte. Ezin izan da zenbatetsi zenbateko aldeak dauden.

- Ezin izan da PFEZari eta BEZari buruzko zerga-pasibo kontingentea jakin, batez ere entitateak jasotako aldi behingo lan edo zerbitzuetan zenbait ordainketatan zerga horiek ez direlako aplikatu.

Txostenean udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu. Hiru eranskin ere jarri ditugu, bat 1996ko abenduaren 31ko finantza-pasiboan zerrenda ematen duena (1. eranskina), bestea entitatearen organigrama agertzen duena (2. eranskina) eta azkena finantza egoeraren azterketa azaltzen duena (3. eranskina).

Zelaiko lana 1997ko uztail eta abuztuan burutzen, batez ere.

Andosillako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu baitute.

IV. IRITZIA.

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Andosillako udalaren 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarrerren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu ditugu.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.1. AURREKONTUAREN KITAPENARI DAGOKIONEAN.

Gure ustez, 1996ko ekitaldiko Aurrekontuaren Kitapenak ongi islatzen ditu Andosillako Udalaren 1996ko ekitaldiko dirusarrera eta gastuak, kobratzeko dauden eskubideak eta ordaintzeko dauden obligazioak bai eta 1996ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina ere. Indarra duen legediaren araber prestatu da, ondoko salbuespenak salbuespen:

- Entitatearen egoera fiskalari buruzko zalan-tza, txosten honetako hainbat ataletan adierazten den bezala.

- Aurrekontu aldaketak ez dira onetsi.

- Kutzako irizpidea erabili da eta 1996ko ekitaldiko eragiketen mozketak desegokia da. Horrek urteko aurrekontuaren kitapenean eragin du:

a) Aurreko ekitaldietako gastu eta dirusarrerak biltzen dituen aurrekontuak emendiozko 47,7 milioi pezeta eta 0,4 milioi pezeta agertzen ditu, hurrenez hurren.

b) 1996an sortu eta ekitaldiko aurrekontuetan sartu ez diren gastu eta dirusarrerengatik, 40,9 milioi pezeta eta 13,3 milioi pezeta, hurrenez hurren.

c) Dirusarrerren erresultetan bildu eta gure ustez akats egindako gisa sartu behar ziren kontusailengatik, saldoa 4,7 milioi pezetatan gutxitu da.

IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Ondareari buruzko kontabilitaterik eta, ondorioz, egoeraren balantzerik ez dagoenez, eta inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1996ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare egoerari buruz.

- Hala eta guztiz ere, adierazi behar da udalaren 1996ko abenduaren 31ko zorraren egoerak ez dituela ondoko kontusailak bildu:

a) 12,3 milioi pezetako zorra, 1995 urtean eta aurrekoetan egindako inbertsioengatik.

b) 2,8 milioi pezetako zorra, aurreko urteetan azpiegitura elektrikoa egiteko itzulketarako egutegirik gabe emandako diru-aurrerakinarengatik.

- Halaber, oihanetako birlandaketak egiteko aurreko ekitaldietako zorra, behar zen unean bildu ez zena eta ezin izan duguna zenbatetsi, txosten honetako VI.6.1. puntuan azaltzen den bezala.

IV.3. LEGEZKOTASUNA.

Aurrekontuaren eta kontabilitatearen, langileen kontratazioaren eta obren eta zergen alorre buruzko arauteria ez da betetzen, txosten honetan zehar azalduko dugun bezala.

IV.4. EGOERA EKONOMIKOA.

Andosillako Udalaren jarduera ekonomikoak zorpetze handia agertzen du eta zailtasun handiak ditu diruzaintzari dagokionean. Berehalako neurriak behar dira konponbidea aurkitzeko. (ikus 3. eranskina).

IV.5. AURREKO TXOSTENEO GOMENDIOEN JARRAIPENA

1990 ekitaldiko fiskalizazio txosteneko gomendioen jarraipena desberdina izan da. Ondokoak aplikatu dira: aurrekontu-egozketei buruzkoak (ekonomi jatorriaren arabera buruturikoak), egiaztagiriak eranstea beharri buruzkoak, fondoak erabiltzeari buruzkoak, banku kontuen azalpeni buruzkoak, adoste eta zenbaketei buruzkoak, langileen espedientei buruzkoak eta aparteko ordui buruzkoak.

Ondokoak aplikatu gabe geratu dira: gastueta-rako kredituen izaera mugatzaileari buruzkoak, aurrekontu aldaketak erabiliz, hala behar izanez gero; aurrekontuarekin batera jarriko diren betetze oinarriak burutzea; ondasunen inbentarioa eguneratzea eta Jabetzaren Erregistroan erregistratu daitezkeenak inskribatzea; diruzaintzaren eginkizunak bereiztea; BEZa ABILen kontabilizatzeari buruzkoak; fidantzak eskatu beharra; ordenantza fiskalak egitea (1997 ekitaldirako prestatu dira) eta erroldak onestea; erroldetako altak eta bajak onestea. (Ikus VI.4.)

Laburbilduz, **ondorio orokor gisa**, ondokoa esan dezakegu:

- Aurrekontua egiteko eta betetzeko, langileak eta obrak kontratatuzko eta zergak antolatuzko garaian antzemandako akatsek agerian jartzen dute gai horiei buruzko arauak hertsikiago aplikatu behar direla.

- Andosillako Udalaren ekonomia- eta finantza-egoerak zorpetze handiak ditu eta zailtasun larriak agertzen ditu diruzaintzan. Aurrezki gordina (diru-sarreraren eta ohiko gastuen arteko aldea) ez da aski finantza-karga estaltzeko.

Egoera honek berehalako neurriak hartzea eskatzen du, lehenbizi aurrekontu-oreka bermatzeko eta ondoren finantza-egoera normalera itzultzeko.

Azken batean, ekonomia-bideragarritasun plan bat onetsi beharko litzateke.

V. FINANTZA-EGOERAK.

Andosillako Udalak aurkeztu dituen finantza-egoerak, 1996ko ekitaldiari dagozkionak, ondoko hauek dira:

Liquidación del presupuesto. Ejercicio 1996 (en pesetas)

Gastuak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
1. Langileen ordainketa	48.207.958	1.200	48.209.158	43.446.375	39.939.609	3.506.766	90	10
2. Ohiko ondasunak erostea	58.068.723	8.438.807	66.507.530	59.747.921	45.750.158	13.997.763	90	14
3. Finantza gastuak	25.000.000	8.155.000	33.155.000	33.154.579	33.154.579	0	100	8
4. Ohiko transferentziak	8.190.000	548.184	8.738.184	5.952.960	4.725.466	1.227.494	68	1
6. Inbertsio errealak	24.452.000	7.000.000	31.452.000	28.526.020	20.640.030	7.885.990	91	6
9. Finantza-pasiboan aldaketak	14.500.000	257.662.975	272.162.975	267.585.292	267.585.292	0	98	61
Guztira	178.418.681	281.806.166	460.224.847	438.413.147	411.795.134	26.618.013	95	100

Dirusarrerak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
1. Zuzeneko zergak	44.195.808	0	44.195.808	42.271.147	40.714.753	1.556.394	96	10
2. Zeharkako zergak	10.381.080	0	10.381.080	10.949.388	10.229.960	719.428	105	3
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	22.900.000	0	22.900.000	25.971.004	24.973.762	997.242	113	6
4. Ohiko transferentziak	54.790.000	0	54.790.000	65.417.683	64.137.841	1.279.842	119	16
5. Ondare dirusar. eta herrilurretakoak	15.150.000	0	15.150.000	4.540.578	4.540.578	0	30	1
6. Inbertsio errealak besterenganatzea	11.450.000	0	11.450.000	12.766.055	12.302.555	463.500	111	3
7. Kapital transferentziak	15.418.405	5.100.000	20.518.405	14.770.804	10.330.350	4.440.454	72	4
9. Finantza-pasiboan aldaketak	0	234.000.000	234.000.000	234.000.000	234.000.000	0	100	57
Guztira	174.285.293	239.100.000	413.385.293	410.686.659	401.229.799	9.456.860	99	100

VI. AZTERKETA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian ondorioak eta udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak eman ditugu, horrela kudeaketan hobekuntza lortu ahal izateko.

VI.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV. Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratorzen diren honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Andosillako Udalaren 1996ko ekitaldiko aurrekontua 1996ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkuran onetsi zen.

Onesteari buruzko aktan gastuen aurrekontu osoa, erresultak barne, besterik ez zen transkribatu.

Udalak onetsitako aurrekontua 4,1 milioi pezetako defizita agertzen du.

Aurrekontua ez zen argitaratu Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Ez ziren aurrekontuarekin batera bera betetzeko oinarriak prestatu, hain zuzen ere aurrekontu sail nagusien izapidatzea arautuko zutenak.

Aurrekontu-betetzea:

Aurrekontu-betetzea, txosten hau egiteko garaian, onetsi gabe dago.

1996ko aurrekontuko dirusarreraren eta gastuen betetze maila altua da, ehuneko 99 eta 95, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, ez da gastuetarako kredituen izaera mugatzailea errespetatu, izan ere gastu horiek aurreikusitako kontusailak gainditzen dituztenean ez direlako aurrekontu-aldaketak egiten. Aurrekontuaren kitapenean aurrekontu-aldaketak ageri badira ere, halakoak agertzen dira informatika-programak ez dituelako gastuak onartzen kasuan kasuko aurrekontu saila agortu bada eta legezko baldintzak betegabe baldin badaude.

1996ko aurrekontu-betetzeak, aurreko urteetako erresultak kenduta, 410,7 milioi pezetako aitorturiko eskubideak agertzen ditu; aitorturiko betebeharrekin, berriz, 438,4 milioi pezeta egiten dute. Beraz, aurrekontu-betetzeak 27,7 milioi pezetako defizita agertzen du.

Gastuen egoeran, aitorturiko betebeharrekin buruzko kapitulurik garrantzikoena finantza-pasiboan aldaketei buruzkoa da, izan ere gastu guztien ehuneko 59 egiten baitu; 234 milioi pezetako banku-maileguen birfinantziazioak biltzen ditu. Ondotik ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketak eta langileen lansariak datoz, izan ere ehuneko 13 eta 10 egiten dutenak, hurrenez hurren.

Dirusarreraren egoeran, kapitulurik garrantzikoena finantza-pasiboan aldaketei buruzkoa da besteen gainean nagusitzen dena, hain zuzen ere 234 milioi pezetako banku maileguen birfinantziarioengatik: aitorturiko eskubideen ehuneko 54 egiten du. "Ohiko transferentziak" eta "zuzeneko zergak" dira ondotik datozenak, izan ere ehuneko 15 eta 10eko aitorturiko eskubideak agertzen baitituzte, hurrenez hurren.

2, 3, 6 eta 9. kapituluetan aurrekontuetan ezarritako mugak gainditu dira, aurrekontu-aldaketarik batere onetsi gabe, legediari jarraituz.

1996ko eragiketen mozketak desegokia da.

Gure azterketan zehar, agerian jarri da 1996ko aurrekontuaren kitapena ondoko zenbatekoetan (mila pezetakotan) aldatu behar zela:

• 1995ekoak izan eta 1996ko aurrekontuetan kitaturiko gastuak.

Kontzeptua	Zenbatekoa
Langileak	397
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	2.363
Gastu finantzarioak	5.712
Inbertsio errealak	11.737
Finantza pasiboan aldaketak	27.312
Guztira	47.521

• 1995ekoak izan eta 1996ko aurrekontuan kitaturiko dirusarrerak.

Kontzeptua	Zenbatekoa
Tasak eta bestelako dirusarrerak	395
Guztira	395

• 1996koak izan eta 1997ko aurrekontuan kitaturiko gastuak

Kontzeptua	Zenbatekoa
Langileak	4.271
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	5.145
Gastu finantzarioak	4.048
Inbertsio errealak	160
Finantza pasiboan aldaketak	27.312
Guztira	40.936

• 1995ekoak izan eta 1996ko aurrekontuan kitaturiko dirusarrerak.

Kontzeptua	Zenbatekoa
Tasak eta bestelako dirusarrerak	455
Ohiko transferentziak	427
Ondare dirusarrerak	10.606
Finantza pasiboan aldaketak	1.788
Guztira	13.276

• Dirusarreraren erresultek huts egindako gisa hartu beharko liratekeen 4,7 milioi pezeta biltzen dituzte.

Beste aldetik, udalaren 1996ko abenduaren 31ko zorrek ez dituzte ondoko kontusailak barne hartu:

• 1995ean eta aurreko urteetan egindako inbertsioengatik zorra: 12,3 milioi pezeta.

• Aurreko ekitaldietako azpiegitura elektrikoa jartzeko diru-aurrerakina, itzultzeko egutegirik jarri ez zena: 2,8 milioi pezeta.

Gainera, aurreko urteetako oihaneko birlandaketak egiteagatik zorra, behar zen unean kontabilizatu ez zena eta ezin izan duguna zehaztu, txosten honetako VI.6.6. puntuan adierazten den bezala.

Aurreko lerroaldeekin bat etorritz, honako hau gomendatzen da:

Indarreko legediak ezarritako epeak betetzea, Udalaren aurrekontuen behin betiko onespenera dagokionean; horrek bidea emanen du aurrekontua oinarritzko kudeaketako tresna gisa erabiltzeko. Toki Ogasunei buruzko Legeak aurreikusitako txostenak ere erantsi behar dira bai eta aurrekontu-betetzearen oinarriak ere; hori guztia N.A.O.n argitaratu behar da.

Aurrekontu orekatuak egin behar dira; gastuak ezin dute aurreikusitako dirusarreraren bolumena gainditi.

Aurrekontuaren betetzea onestea indarreko legediak ezarritako denbora-mugetan.

Gastuen eta dirusarreraren kontabilizazioak beren sortzapenaren arabera agertu behar du, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, kredituen muga-izaera errespetatuz edo/eta aurrekontu-aldaketak eginez, hala behar izanez gero.

Toki sektore publikorako kontabilitate plan orokorra ezartzea, eta udalak hori dauzkan langileekin egin ote daitekeen aztertu dezala; horretarako modurik ez badago, itun bat egin daiteke beste toki entitatearen batekin. Plan hori 1998 urterako ezartzea aurreikusi da.

VI.2. KONTINGENTZIAK

Txosten honetan zehar adierazi dugun bezala, zerga-pasibo kontingenteak daude bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan bai Balio Erantsiaren gaineko zergan ere; zenbatesten zailak dira.

Aurreko lerroaldeetan esandakoari jarraituz, hona hemen gure gomendioa:

Kontabilitate mailako jarduketa eta prozeduretarako arauen eskuliburua egitea, entitateak egiten dituen eragiketei aplikatu dakizkiekeen zerga-arauak bilduz.

VI.3. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

Jaso dugun informazioaren arabera eta aintzat hartuta txosten honetan biltzen diren iruzkinak, udalak ondoko finantza egoera dauka 1996ko abenduaren 31n (mila pezetakotan):

Kontzeptua	Zenbatekoak
Kobratzeko dauden eskubide garbiak	15.762
Ordaintzeko dauden obligazio garbiak	-26.618
Diruzaintzako saldoa	-4.331
Diruzaintzako gerakinaren egoera	-15.187

Halaber, udalak aurreko aurrekontuetan sartu zuen itzultzekoa den 13,1 milioi pezetako zenbatekoa (BEZa).

Defizit hori, dena den, doitu egin beharko litzateke kobratzeko dauden 4,7 milioi pezeta inguruko ordainagiritako akats eta ordainezintasunarengatik.

Gainera, mugaeguneratuta daude Nafarroako Gobernuak emandako 27,3 milioi pezetako zenbatekoak, aurrekontuan sartu ez direnak, eta 12,3

milioi pezeta aurreko ekitaldietako inbertsioengatik zorrari dagozkienak, horiek ere aurrekontuan sartu gabeak.

Beste aldetik, jarraian eman ditugu 1996 eta 1995 urteetako aurrekontu-betetzeetatik atera ditugun ratio eta magnitude batzuk, udalak berak aurkeztuak:

Kontzeptua	1995 (*)	1996 (**)	1996 (***)
Superabita (Defizita) (mila pezetakotan)	6.266	-27.726	-8.261
Aurrezki gordina (mila pezetakotan) (1)	44.538	40.003	44.439
Aurrezki garbia (mila pezetakotan) (2)	6.796	-26.737	-20.636
Zorpetze maila (3)	24%	45%	41%
Zorpetzearen muga (4)	28%	27%	28%
Per capitako gastu publikoa (pezetak)	72.210	81.407	78.785
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetak) (5)	12.247	11.360	6.750
Tributu dirusarrerak/biztanlea (pezetak) (6)	29.638	31.538	31.562

(*) 1995eko datuak ikuskatu gabe daude.

(**) Doitutako gastuak 234 milioi pezetako maileguren birfinantziazioa kenduta.

(***) Doitutuako gastuak birfinantziazioa kenduta eta txosten honetako VI.1 puntuan zehaztutako doiketak eginda.

(1) Ohiko dirusarrerak (Dirusarreei buruzko 1. kapitulutik 5. kapitulura) - Funtzionamendu gastuak (1, 2 eta 4. kapituluak).

(2) Aurrezki gordina - Finantza karga. (3 eta 9. kapituluak).

(3) Finantza-karga x 100/ Ohiko dirusarrerak

(4) Aurrezki gordina x 100/ Ohiko dirusarrerak

(5) Inbertsio gastuak /Biztanle kopurua

(6) Tributu dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak)/ Biztanle kopurua.

Jarraian, aurreko ratio eta magnitudeak komentatuko ditugu:

- Alde handia dago bi ekitaldien artean aurrezki garbiei eta zorpetzearen adierazleei dagokienez; horren arrazoia da 1995eko finantza-kargak, 37,7 milioi pezeta egiten duenak, ez dituela barne hartu Nafarroako Gobernuak emandako maileguetako 27,3 milioi pezeta, hain zuzen ere 1996an sartu direnak. 1995eko ekitaldietako aurrezki garbiak negatiboak direla –hain zuzen ere aurrekontuak jasan behar duen finantza-karga handiarengatik– eta aurrezki gordin positiboak aurrezki garbi negatibo bihurtzen dituztela.

- Tributuen bidezko per capita dirusarreek ehuneko 6,4 egin dute gora 1996an, batez ere zerbitzuak emateari buruzko kontusailarengatik, izan ere zuzeneko zergek ehuneko 3 egin dutelako behera eta zeharkako zergek beste horrenbeste egin dutelako gora. Horri dagokionez, komeni-

garría da tributuen bidezko dirusarrerak handitzea.

- Per capita inbertsioek ehuneko 7 inguru egin dute behera, baina aintzat hartzen badugu aurrekontuak aurreko ekitaldietan egindako 11,7 milioi pezetako inbertsioak biltzen dituela (ikus adierazle doituia), nabarmena da inbertsioen beherako joera.

- Zorpetzeko gaitasuna adierazlearen eta mugaren arteko aldeak ematen du eta ehuneko 18 negatiboa da (doituz gero ehuneko 13); horrek esan nahi du oso abiapuntu txarra dela geroko ekitaldietarako, salbu ezohiko edo aparteko dirusarrerak gertatzen badira.

1. eranskinetik ondoriozta daitekeen bezala, 1996ko abenduaren 31n maileguengatik eta diru-aurrerakinengatik hartutako zorrek, betiere antzemandako doiketak kontuan hartu gabe (ikus VI.6.1.6.), 463,2 milioi pezeta egin dute.

1996ko finantza-karga honela azaldu daiteke:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Zorra amortizatzeagatik (birfinantziazioa kenduta)	33.585
Korrituengatik	33.155
Guztira	66.740

Aurreko koadroan azaldutakotik ondoriozta daiteke urteko finantza karga beteriko gastuaren ehuneko 32 dela, betiere birfinantziazioa aintzat hartu gabe.

3. eranskinean, mila pezetakoetan zehaztu da 1996ko abenduaren 31ko egoera ekonomikoa eta 1997 urterako aurreikusten den finantza-egoera, ondokoak aintzat hartuta: besterendu daitekeen udal ondarea, bankuetako eta 1996ko abenduaren 31ko banaketa-kontuko zorpekoak barne hartzen duen finantza-karga (4,3 milioi pezeta) eta 1996an mugaeguneratuko diren eta ordaindu gabe egonda ere aurrekontuan sartu ez diren urtekoak (27,3 milioi pezeta).

Hona atera daitekeen ondorioa: ikusirik besterendu daitezkeen ondasunen balioaren eta horiek finantziatzeko hartutako zorren (306 milioi pezeta) arteko aldea, 1997 urtean ekitaldi horretako aurrekontu-defizita berdintzeko industrialdeetako lursailak saltzeagatik ezohiko dirusarrerak eskuratuta ere, desoreka ekonomiko eta tentsio finantzario gehiegi daude entitateko ohiko aurrekontuen bitartez arazoak gainditu ahal izateko.

Gure gomendioa da bideragarritasun ekonomiko plan bat egitea eta plan horren betetzeari

buruzko kontrolak egitea aldiro. Plan horrek, dituen ezaugarriengatik, udal talde politikoen arteko akordioa eskatzen du, izan ere legegintzaldi bat baino gehiago hartu behar duelako. Halaber, komenigarria da Nafarroako Gobernua ere, nahi den moduan, plan horretan parte izatea.

VI.4. AURREKO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

IV.5. atalean aurreko txosteneko gomendioen laburpen orokorra egin da, adieraziz zein aplikatu diren eta zein ez. Hori dela eta, berriz ere adierazi nahi dugu komenigarria dela aurreko txosteneko gomendioak eta lan honetatik ateratzen direnak aplikatzea.

VI.5. BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

VI.5.1. Administrazio eta kontabilitate prozedurak.

Ez daude idatziz jasota kontabilitate eta administrazio zirkuitu nagusiak, ez eta enplegatu bakoitzak dituen eginkizunak ere.

Gure gomendioa da oinarrizko administrazio- eta kontabilitate- prozedurak zehaztea: erosketak, nominak, kobrantzak eta ordainketak. Enplegatu bakoitzak dituen eginkizunak zehaztu eta bakoitzaren eginbeharrak eta erantzukizunak mugatu behar dira.

VI.5.2. Ondarezko ondasunak.

Alor honetako azterketa egin ondoren, ondoko aldeak azpimarratu nahi ditugu:

- Udalak ez ditu eskrituraturik, ez Jabetza-Erregistroan erregistraturik, bere jabetzapeko ondasun higiezin eta herrilur guztiak; ez dago ondasunen inbentario orokorrik; ez da Eraiki gabeko Lurren eta Orubeen Erregistroa sortu.

- Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarea eratu, ez eta ohiko baliabideen ehuneko 5 aurrekontuan jartzen ere.

Aurreko lerroaldeetan esandakoak aintzat hartuta, hona hemen gure gomendioak:

Ondasunen inbentario orokorra egitea, ondasun guztia bertan bilduz, ez bakarrik landa- eta hiri-ondasunak; betiere garrantzi erlatiboaren irizpidea erabiliko da.

Udalak behar diren neurriak hartu behar ditu ondasun guztiak eskrituraturik eta Jabetza-Erregistroan inskribaturik egon daitezen.

Lurzoruaren Udal Ondarea eta Eraiki gabeko Lurren eta Orubeen Erregistroa eratu behar dira;

behar den zenbatekoa jarri beharko da inbertsioetarako.

VI.6. INTERESEKO ALOR BEREZIAK

VI.6.1. Langileen soldatak

Langileen gastuei buruzko kapituluak, funtsean, langile funtzionarioen lansariak, lan kontratadunen Gizarte Segurantzako kuotak, Osasun Laguntza eta Montepioak biltzen ditu.

43,4 milioi pezetako aitorturiko obligazioak biltzen ditu kapitulu honek, eta aitorturiko guztizkoaren ehuneko 10 egiten du; behin betiko aurrekontuaren ehuneko 90eko betetze-maila agertzen du.

Hauek dira 1996 ekitaldiko langileen kapitulari buruzko xehetasunak:

Kitaturiko obligazioak	(mila pezetakotan)
Kontzeptua	Zenbatekoa
Funtzionarioen lansariak	16.967
Udalkideak	90
Lan kontratadun langileak	2.685
Kontratadun langileak	6.494
Gizarte Segurantzaren kuotak	3.869
Klase pasiboak	13.341
Guztira	43.446

Laburbilduz, 1996ko abenduaren 31n, hauek dira udalean lanean ari diren langileak:

Kontzeptua	Zenbat
Funtzionarioak	4
Lan kontratadun finkoak	2
Aldi baterako lan kontratadunak	2
Guztira	8

Langile funtzionarioak honela banatuta daude:

Kontzeptua	Zenbat
Idazkaria	1
Administrari ofiziala	2
Mandataria	1
Guztira	4

1996an udal funtzionario bat jubilatuta da. Haren lanpostua ez da bete.

Diruzaintza udalak berak kudeatzen du, hain zuzen ere administrari ofiziala den langile funtzionario batek.

Udalak ez du langileen organigramarik (ikus 2. eranskinean gutxi gora-beherako organigrama bat).

Arlo honetan datuak sortzeko eta kontabilizatzeko jarraituriko prozeduren azterketa eginda, ondokoa geratu da agerian:

- Plantila organikoaren onespena udalaren Osoko Bilkurak eztabaidatu zuen 1996ko ekainaren 11n. Administrari laguntzaile bat lan kontratu mugagabearen bidez zuzenean kontratatzeaz hitz egin zuten. Bilkura horretan gaia erabaki gabe utzi eta 1996ko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran berriz ekin zitzaion: administrari laguntzaile bat kontratu mugagabe baten bidez kontratatzea erabaki zen. Udaleko idazkariak ohartu zuen legez aurkakoa zela hori. Ez da plantila organikoa onesteari buruzko aipamenik egiten. Plantila hori ez da N.A.O.n argitaratu, hori nahitaezkoa den arren.

- Enplegatu bakoitzari buruzko espedienteek ez dituzte haiei buruzko administrazio agiri guztiak biltzen.

- Udalarekin lan harremanen bat daukaten pertsona guztiek kasuan kasuko kontratua sinatu dute, eta plantilan sartzeko indarra duen legediari jarraitu zaio, salbu aipaturiko administrari laguntzailearen mugagabeko kontratuaren kasuan, lehen aipatu den bezala.

- Eragiketen mozketan ohartu gara udalaren karguko 1996ko abenduko gizarte segurantzaren kuotak eta Funtzionarioen Erabilera Bereziko Osasun laguntzako derramak -0,4 eta 0,1 milioi pezeta hurrenez hurren- ez direla sartu 1996ko kitapenean. Aitzitik, 1996ko aurrekontuak kontzeptu horiek direla-eta 1995eko abenduan sorturiko kontzeptu berdinak biltzen ditu 0,3 eta 0,1 milioi pezetatan.

- Klase pasiboetako buruzko kontusailak negatiboa bildu du Nafarroako Gobernuak finantziario laguntzetarako emandako 6,1 milioi pezetako ohiko transferentzia; beraz, haren saldoan zenbateko hori kendu da.

- Udalkideen lansariei dagokienez, 3,8 milioi pezetako aurrekontua zegoen. 1996an eta kontusail horren kargura 1995 urteko gastuei zegozkien 0,1 milioi pezetako ordainketa kontabilizatu zen. Ez ziren udalkideen 1996ko lansariak erabaki. 1997an eta urte horretako aurrekontuaren kargu-

ra, guztira 3,8 milioi pezetako ordainketa erabaki zen, 1996 urteko udalkideen lansarien kontzeptuan.

Aurreko lerroaldetako iruzkinei jarraituz, ondoko gomendioak eman nahi ditugu:

Udalaren plantila organikoa argi eta garbi onestea, hori aktan transkribatzea, betiere legediak ezarritako egunetan, eta plantila N.A.O.n argitaratzea.

Langileak kontratatzeari dagokionean, indarreko legedia hertsiki aplikatzea.

Enplegatutako bakoitzari buruzko espediente banakatu eta osoa egitea, legediak ezartzen duen bezala.

Udalkideen lansariak behar den aurrekontuari egoztea, sortzapenaren printzipioari jarraituz.

VI.6.2 Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketak

Aitorturiko obligazioek, 59,7 milioi pezeta, aitorturiko guztiaren ehuneko 13 egiten dute; behin betiko aurrekontuaren ehuneko 90eko betetzea du, onetsi gabeko aurrekontu aldaketak barne -8,4 milioi pezeta-. Ondokoak dira 2. kapituluaren xehetasunak 1996an:

	(mila pezetakotan)
Kontzeptua	Kitaturiko betebeharrak
Bulego gastuetarako ohiko zenbatekoa	1.410
Higiezinetakako gastuak	17.439
Bidaiak eta dietak	444
Funtzionamendurako gastu bereziak	28.110
Kontserbazioa eta ohiko konponketak	8.827
Inbentariatu daitekeen materiala	2.921
Ezusteak	597
Guztira	59.748

Prozeduren eta kontabilizaturiko zenbatekoen azterketa eginda, ondorio hauek atera ditugu:

- Ez dago alor honi buruzko idatzizko prozeduren eskulibururik, ez eta gehien erabiltzen diren hornitzaileen zerrendarik edo erosteko ezarrikako preziorik ere.

- Eragiketen mozketak desegokia egin da 1995 eta 1996 urteetan; beraz, aurrekontuaren kitapean 1995 urteari dagozkion 2,4 milioi pezeta inguruko gastuak biltzen ditu eta ez ditu sartu ekitaldian bertan sorturiko 5,1 milioi pezetako gastuak.

- Ez da aintzat hartu aurrekontuko gastuen izaera mugatzailea; festei buruzko kontusailak, batez ere, 6,2 milioi pezetatan gauditzen du aurrekontuetan ezarritakoa. 1996ko festetan ere adierazi ez diren milioi bat pezetako gastuak antzeman ditugu. Zenbateko horiek aurreko lerroaldean azaldu ditugun doiketetan sartu dira.

- 25. artikuluan, Arau Subsidiarioak berraztertzen ari den arkitektu jaunaren lansariak ordaintzeko aurrekontu saila dago, baina ez da bete kontusail hori. Osoko Bilkurako aktetatik ondoriozta daiteke lan hori 1995 eta 1996 urteetan egin dela. 1997 urteko aurrekontuaren kargura 1,5 milioi pezeta kontabilizatu da. Zenbateko hori proposaturiko doiketetan sartu da eragiketen mozketari buruzko puntuan.

- Badaude profesionaleri eta lankideei egindako ordainketa batzuk non PFEZaren atxikipena ez den egin eta kasuan kasuko BEZa ez den aplikatu; garrantzi berezia dauka garbiketa zerbitzuak -4,1 milioi pezeta-, izan ere ez zaiolako BEZa aplikatu,

- 25. artikuluan legetari, prokuradore eta isun gastuak daude, 0,5 milioi pezetakoak, oraingo alkatearen eta aurreko alkatearen arteko epaiketarik sortutakoak.

- Informatikako materiala eta haren euskarri logikoa 2,7 milioi pezetatan erosteko eta gero haren mantenimendua kontratatzeako orduan, zuzeneko kontratazioa erabili da, gutxienez balizko hiru hornitzailearen lehia eskatu gabe. Esleipena hartu duenari ez zaio fidantzarik eskatu.

Aurreko lerroaldeetan zehaztutakoari jarraituz, hona gure gomendioak:

Fakturak eta haien formazko beharkizun guztiak eskatzea -BEZa eta PFEZa-, gastuak ordaintzeko aurretiazko baldintza gisa.

Kontratazioei buruzko indarreko legediak ezarritakoa betetzea.

VI.6.3. Finantza gastuak

Kapitulu honek 33,2 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu aurrekontuan, aitorturiko guztiaren ehuneko 7; behin betiko aurrekontuaren ehuneko 100eko betetzea du, onetsi gabeko aurrekontu aldaketak barne -8,2 milioi pezeta-.

Kontabilizaturiko prozedurak eta zenbatekoak aztertu ondoren, hona hemen gure ondorioak:

Finantza-gastuak kutzako irizpidearen arabera kontabilizatzen dira; badaude 1996ko aurrekontuan sarturiko 5,7 milioi pezetako karguak 1995eko ekitaldiari dagozkionak; 1996an mugae-

guneraturiko 4 milioi pezetako korrituak, aldiz, ez dira sartu.

- Finantza Pasiboen Aldaketengatiko gastuen kapituluaren korrituen 1,8 milioi pezeta kontabilizatu dira.

Aurreko lerroaldeetan zehaztutakoaren arabera, hona gure gomendioa:

Maileguetako korrituei eta amortizazioei buruzko kapituluetak bakoitzean kontabilitate ezberdina eramatea.

VI.6.4. Ohiko transferentziak.

6 milioi pezetako aitorturiko obligazioak dituen kapitulu honek aitorturiko gastu guztiaren ehuneko 1 egiten du eta ehuneko 68ko betetze maila du, baxuena gastuen kapituluaren, eta onetsi gabeko 0,5 milioi pezetako aurrekontu-aldaketak ere bildu dira, izan ere azkenean behar izan ez direnak.

Alor honetan azterketa egin ondoren, ondokoak ohartu ditugu:

- Aurrekontuetako artikuluko ekonomikoen araberrako mugak ez dira errespetatzen

- Entitate San Adriángo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatekoa da. Azken horrek egindako ohiko transferentzien ehuneko 50 kudeatzen ditu eta ekitaldiaren bukaeran kitapenak eta horiei buruzko azalpen-txostenak aurkezten ditu.

Gainerako transferentzietatik, ia guztiak ordainagiria aurkeztu ondoren egindako zuzeneko ordainketak dira; horrek behar den helbururako erabili direla bermatzen du.

Behar diren legezko beharkizunak betetzen ez dituzten ordainagiriak –batez ere, BEZari dagokionez– onartu eta kontabilizatzen dira.

Behar diren ordainketa guztietan ez da PFEZaren atxikipenik egiten.

Aurreko lerroaldeetan zehaztutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Artikuluen araberrako gastuen izaera mugatzailerarek errespetatzea eta behar denean artikuluarteko kredituak aldatzea, behar den aurrekontu-aldaketa eginez.

Legezko beharkizun guztiak betetzen dituzten ordainagiriak eskatzea.

PFEZaren atxikipenak aplikatzea indarreko legediaren arabera hala egin behar den kasu guztietan.

VI.6.5. Inbertsio errealak.

Kapitulu honek 28,5 milioi pezetako onartutako obligazioak biltzen ditu; aurrekontuaren betetze osoaren ehuneko 6 dira. Haien betetzeak behin betiko aurrekontuaren ehuneko 91 egin du, onetsi gabeko 7 milioi pezetako aurrekontu-aldaketak barne.

Hona hemen 1996ko ekitaldian eginiko inbertsioei buruzko zenbait xehetasun (mila pezetakotan):

Kontzeptua	Zenbatekoa
Andosillako zeharkaleak egokitu eta hobetzea	4.585
Ramón y Cajal eta Escuelas kaleetako zorua jartzea	4.905
Compactaciones y Nivelaciones Pardo, S.L. enpresarekiko zorraren amort.	11.736
Virgen de la Cerca Ikastetxeko kanpoko ate-leihoak berritzea	6.565
Obretarako materialak, INEMen laguntzarekin	630
Arratoiak hiltzea eta ingurugiro arloko aholkularitza	105
Guztira	28.526

Gure lanean lehenbiziko lauak aztertu ditugu, izan ere ehuneko 97ko azterketa.

A) Andosillako zeharkaleak egokitu eta hobetzea

Nafarroako Gobernuak maiatzaren 3ko 1276/96 Foru Aginduaren bidez proiektuaren erredakzioa egiteko esleipena baimendu zuen. Esleipena era zuzenean eman zitzaion bertako arkitekto bakarrari, udalaren inbertsio errealean arloko jarduera guztiak egiten dituen.

B) Ramón y Cajal eta Escuelas kaleetako zorua jartzea.

Proiektua zuzenean esleitu zitzaion aurreko lerroaldean aipatu dugun arkitektoari, Toki Azpiegituretako Hobekuntzen 93-95 Hirurteko Planaren barruan.

Aipatu proiektua atzeratu eta murriztu egin zen, izan ere administrazio bidez eta auzokideen laguntzarekin egin baitzen obraren parte bat.

Hasierako proiektuaren murrizte hori honela azaldu daiteke mila pezetakoetan:

Kontzeptua	Partziala	Guztira
Hasierako aurrekontua	10.819	10.819
1. ziurtagiria	2.242	-
2. eta azken ziurtagiria	2.593	4.835
Aldea		5.984

Kontratazio espedientean ez dira ageri eskatu behar diren agirietako gehienak: pleguak, txostenak, kontratua, fidantzak, behin betiko proposamenak, aldaketak eta abar.

Esleipena lehiaketa itxiaren bidez egiten da, gonbitea egin eta presako izapidez.

Espedientearen egoera aintzat hartuz gero, ezin da betetzearen baja aztertu.

Lana, Nafarroako Gobernuak ehuneko 80an diruz lagundua 1996ko azaroaren 28an jaso zen behin-behinekoz. Ez da behin-betiko jasoketa gertatu, izan ere epea ez delako bukatu.

Kapital transferentzien bidezko dirusarreraren kapituluak inbertsio honetarako dirulaguntzari dagozkion 4,3 milioi pezeta biltzen ditu, alegia, langileen lansarien eta obra-ziurtagirien ehuneko 80.

C) Compactaciones y Nivelaciones Pardo, S.L. enpresarekiko zorraren amortizazioa.

1995 eta 1996 urteetako eragiketen mozketak desagokiaren ondorioz, ekitaldiko dirusarrera gisa kontabilizatu zen aipatu enpresarekiko zor atzeratuen ordainketaren parte bat, 1996 baino lehenagoko ekitaldietan sortu zena.

11,7 milioi pezetako zenbateko horretaz gainera, 12,3 milioi pezeta daude ordaintzeko eta kontabilizatzeko. Atzerapen horrek zenbatekoen korrituak ere ekartzen ditu berekin, baina atzerapenari buruzko kontraturik ez dagoenez edo agertu ez denez, ezin izan da horri buruzko zenbatespena aztertu.

D) Virgen de la Cerca Ikastetxeko kanpoko ate-leihoak berritzea.

Ondokoa izan zen esleipen prozedura:

Kanpoko metalezko ate-leihoak aldatu behar eta Nafarroako Gobernuaren kofinantziakoa lortu ondoren, arkitektuak herriko metal-zurginei (kontzeptu hori dela-eta lizentzia fiskala ordaintzen dutenak) aurrekontua eskatu zien.

1996ko uztailaren 2ko Osoko Bilkurako Aktatik ondoriozta daitekeenez eta lehen aipatutako

gonbiteari jarraituz aurkeztutako eskaintzen (ez dira eskaintza horiek ageri) eta izandako elkarrizketen arabera, lana bi enpresek egitea erabaki zen.

Bi hornitzaile horien ordainagiriak ageri dira, guztira 6.525.324 pezeta egiten dutenak eta kontabilizaturik daudenak.

Espedientean ordainagiri bat aurkitu dugu kontabilizaturikoak daukan zenbaki eta kontzeptu berdinak dituena baina 1.000.000 pezeta gehiago egiten duena; ordainagiri hori ez zen ordaindu eta ez kontabilizatu ere. 1997an, 1997ko aurrekontuaren kargura bi ordainagiri horien arteko aldeari dagokion BEZa, alegia, 160.000 pezeta.

Ez zen fidantzarik eskatu ez eta bermeagatiko atxikipenik egin ere.

Nafarroako Gobernuak emandako finantziarioaren guztizkoak 5,1 milioi pezeta egiten du; aintzat hartzen bada aurreikusitako finantziarioak obraren ehuneko 69,22 egiten zuela, emendiozko 0,5 milioi pezeta eskuratu dira.

Espedientean ez da bestelako agiririk azaltzen.

Obra honi buruzko dokumentazioa aztertuta, hona hemen gomendioak:

Kontratuei buruzko Foru Legeak eta kontratazio publikoa arautzen duten gainerako arauak eskatzen dituzten beharkizunak bilduko dituen prozeduren eskuliburua prestatzea, espedienteek behar diren egiaztagiri guztiak bil ditzaten, eta inbertsioen betetze egokia bermatzeko barne kontroleko tresnak ezartzea ere, kontutan hartuz haien kudeaketa zuzena galdatzen duten oinarriko prozedura eta legeak, bai ikuspegi ekonomiko eta razionaletik, bai legezkotasun printzipioari men egiteari dagokionean ere.

Legezko arauteria hertsiki betetzea, jasotako ordainagiriei dagokienean.

VI.6.6. Finantza-pasiboen aldaketak

Aitorturiko obligazioek guztira 267,6 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute; hori aitorturiko gastu guztiaren ehuneko 59 da; betetze maila, berriz, ehuneko 98koa da, onetsi gabeko 257,7 milioi pezetako aurrekontu-aldaketak barne.

Kapitulu honek bere baitan hartzen du 234 milioi pezeta birfinantziatzeagatiko banku maileguen amortizazioa, Osoko Bilkurak inongo xehetasunak eman gabe, orokorrean onetsitakoa.

Birfinantziaturiko 234 milioi pezetako zenbatekoa eta kapitulu honetan kontabilizaturiko 1,8 milioi pezetako korrituak kenduta, aitorturiko obligazioek, guztira, 31,8 milioi pezeta egiten dute, hau da, aurrekontuaren ehuneko 15. Aintzat hartzen bada banku maileguetan lorturiko birfinantziatioak 6 hilabeteko ezaldia ematen duela, maileguak amortizatzeagatiko finantza-kargak ekitaldiari zegokiona baino 10 milioi pezeta gutxiago ditu.

Egindako azterketaren ondorioz, ondokoak ohartu nahi ditugu:

- Industrialdea finantziatzeko maileguen muga-eguneraturiko urteko ordainketen beste birfinantziatio bat ageri da, gastu gutxiago balitz bezala kontabilizatu dena. Hau da, birfinantziatio bi eragiketa bi modutara kontabilizatu direla.

- Aurrekontua egiteko garaian, aintzat hartu ziren soilik banku-maileguetako ekitaldiko amortizazioak, udal industrialdea finantziatzeko Nafarroako Gobernuak emandako maileguen urteko ordainketen mugaegunak ere birfinantziaturiko zirelakoan.

- 1995eko abenduaren 31n udal industrialdea finantziatzeko Nafarroako Gobernuak emandako maileguetatik bi urteko ordainketa osorik mugae-guneraturik eta aurrekontuan jaso gabe zeuden. Bi horiek 54,6 milioi pezeta egiten zuten; horietatik 27,3 milioi pezeta atzeratu egin ziren 10 urteko birfinantziatioaren bidez eta 27,3 milioi pezeta ordaindu egin ziren.

- Maileguen birfinantziatioak 8 urte laburrago egiten ditu amortizazio-epeak, alegia 2.014tik 2006ra bitartekoak; beraz, hurrengo ekitaldietarako finantza-karga handitu egingen da, nahiz eta kontraturiko korrituen murrizketaren ondorioz ordainduko dena gutxiago izanen den zenbaki erlatiboetan.

- Buruturiko zirkularizazioetatik, egiaztatu ahal izan dugu udalaren zorraren egoeran sartu ez diren bi zor daudela.

Lehenbizikoa 2,8 milioikoa da eta 1982 urteko diru-aurrerakin bati dagokio, hain zuzen ere azpiegitura elektrikoa ordaintzeko, Industri Departamentuak kudeaturik.

Bigarrena ezin izan dugu zehazki zenbatetsi, izan ere Viveros y Repoblaciones sozietatearen arabera 14,8 milioi pezetakoa baita eta Ingurugiro Departamentuaren irritziz, aldiz, 33,7 milioikoa.

Aurreko lerroaldeetan zehaztutakoari jarraituz, hona hemen gure gomendioak:

Maileguen birfinantziatioaren xehetasunak zehaztea Osoko Bilkurak onesteko garaian, behar denean aurrekontu-aldaketan formula erabiliz.

Ekitaldiko suertatzen diren mugaegunak aintzat hartzea aurrekontua prestatzen denean, izan ere mugaegun batzuk atzeratzea egindako gauza gisa hartu eta gero halakorik egitea lortzen ez bada, aurrekontuaren defizita ageri-agerian gelditzen delako.

Birfinantziatioak modu homogeen hartzea, dagozkien gastuen eta dirusarreraren kapituluak kontabilizatuz, amortizazioa izan ala maileguaren ezartzea izan.

Finantza-pasiboen zerrendan sartzea oihan birlanaketa eta diru-aurrerakinak direla eta dagoen saldo hartzekoduna, xehetasun hori Nafarroako Gobernuarekin argitu eta gero.

Korrituak kontabilizatzea beti finantza-gastuen kapituluak.

VI.6.7. Gastuen erresultak

Gastuen erresultek 26,7 milioi pezeta egiten dute 1996ko abenduaren 31n. Kontzeptu honetan sarturiko hornitzaile guztiei zirkularrak bidali zaizkio baina ez da erantzunik jaso. Zein hilabetetan gauden kontuan hartu eta ez indarririk egitea erabaki da: saldoen egiazkotasuna bermatzeko nahikoak izan diren metodo alternatiboak aplikatu dira.

Hona hemen 1996ko abenduaren 31ko erresultei buruzko zenbait xehetasun, mila pezetakotan emanda:

Kontzeptua	Zenbat
Langileen lansariak	3.507
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	13.998
Ohiko transferentziak	1.227
Inbertsio errealak	7.886
Guztira	26.618

Saldoak osatzen dituzten kontusailen xehetasunak baditugu, baina ez dago zor diren saldoen hartzekodunen araberrako zerrendarik.

Txosten hau egiteko orduan, kontusailen ehuneko 100 kitatu dira.

1996an sortu eta urte horretako aurrekontuaren kitapenean sartu ez ziren gastuen doiketen ondorioz, erresultak aldatu egingen ziren; ondoko zenbatekoetan, mila pezetakoetan, handiagotu ziren:

Kontzeptua	Zenbat
Langileen lansariak	4.271
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	5.154
Ohiko transferentziak	4.408
Inbertsio errealak	12.423
Finantza pasiboen aldaketak	27.312
Guztira	53.719

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoari jarraituz, hona gure gomendioa:

Entitateak zor dituen saldoekin, hartzekodun guztien zerrenda bat egitea.

VI.6.8. Zuzeneko eta zeharkako zergak.

Zuzeneko zergak 42,3 milioi pezetako kitaturiko eskubideak egiten dituzte, alegia, aitorturiko eskubideen ehuneko 10; guztiaren ehuneko 96ko betetzea ageri dute. Ondoko zerga hauek biltzen dituzte: landa kontribuzioa, hiri kontribuzioa, abeltzaintza kontribuzioa eta lizentzia fiskala.

Zeharkako zergak 109 milioi pezetako kitaturiko eskubideak egiten dituzte, alegia, aitorturiko eskubideen ehuneko 2,5; guztiaren ehuneko 105eko betetzea ageri dute. Ondoko zerga hauen biltzen dituzte: ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga eta Telefonicaren kanona.

Kontabilizaturiko prozedura eta zenbatekoak aztertu ondoren, ondokoak egiaztatu ahal izan ditugu:

- Ez dago ondoko prozedurak idatziz biltzen dituen eskulibururik: burutze, betetze, jarraipen eta kontrol prozesuak, alta eta bajen prozedurak, dirubilketako agenteari ematea, banku-helbideratzeak kontrolatzea eta berankorren jarraipena.

- Ez da inon ageri organo eskudunak erroldak onetsi edo aldatu dituenik.

- 1996 urterako indarrean egonen diren zergak ez dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

- Osoko Bilkurak ez du onetsi lizentzia fiskalean aplikaturiko ehunekoa, alegia, ehuneko 2a.

- Ez dago ordainarazpen fiskalak arautzen dituen ordenantzarik.

- Zirkulazio zergari dagokionez, 250 c.c. baino gehiagoko motorrei LHLOC legeak ezarritakoaz goragoko tasak eta 500 c.c. baino gehiagokoei lege horrek ezarritakoaz beheagoko tasak ezarri izanak bietan tarifa bera aplikatzea ekarri du. Akats hori antzeman gabe zegoen.

- 1995 eta 1996ko ordaindu gabeko zergak ez zaizkio Dirubilketako agenteari pasatu.

- Dirubilketako agenteari ez zaio fidantza jarzkeko eskatu.

- Ez da ezarri berankorrek zor dutenak huts egindakora aldatzeko jarraitu beharreko bidea; halakorik egiten da soilik Dirubilketako agenteak horren beharra ikusten duenean, organo eskudunak onetsi gabe ere. 1 eta 2. kapituluetak itxitako ekitaldietako dirusarreraren erresultengatik saldoetik, 1994 baino lehenagokoak direlako eta egiaztatu ahal izan ditugun bestelako arazoengatik, 4,7 milioi pezetako zorra huts egindakora aldatu dugu.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Alorrari buruzko idatzizko prozeduren eskuliburua prestatzea, burutze, betetze, oneste, jarraipen eta kontrol prozesuetako jarduteko arauak, erroldetako aldaketak, kobrantzaren kudeaketa Dirubilketako agenteari aldatzea eta berankorren zorrak huts egindakora aldatzea bildu eta eginkizun bakoitzaren arduraduna ezartzen dituen.

Organo eskudunak erroldak eta haien aldaketak onestea.

Ekitaldi fiskalerako onetsiriko zerga-tasak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Osoko Bilkuran onetsitako aktetan sartzea zerga guztietarako ezartzen diren tasak.

Zergen ordainarazpena arautzen duten ordenantza fiskalak prestatzea.

Dirubilketako agenteari fidantza eskatzea.

VI.6.9. Tasak eta bestelako dirusarrerak.

Aitorturiko eskubideetan 26 milioiko zenbatekoa egiten dute, hau da, aitorturiko eskubide guztien ehuneko 6. Aurreikustakoaren ehuneko 113 bete da.

Kapitulu honetan ondoko gaiengatik dirusarrerak kontabilizatu dira: erabilerarik gabeko gauzak saltzea, agiriak egitea, obra lizentziak, ikuskapen teknikoa, hilerriko eta funeraria zerbitzuak, igerilekuak eta jaiak, zaborren bilketa zerbitzua, erabilera publikoen lurra, lurra-lurrazpia eta hegaldiak, itzulketak (lokalen mantenimendua), ustekabekoak eta bideak konpontzea, herrilurra errentan jartzea eta ehiza barrutia.

Kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, ondokoak ohartu ditugu:

- Ez da ageri euskarria erroldetan ez duten zenbait tributu-dirusarreraren kobrantza arautzen duten idatzizko araurik, hala nola eraikuntzen gai-

neko zerga, agiriak ateratzeko zerga, bide publikoak hartzeko tasa.

- Errentan jartzeagatik lorturiko produktuak kapitulu honetan sailkatzea.

- Eraikuntzen gaineko zergaren eta hirigintza lizentzien kasuetan, informazioa ematen duen arkitektua batzuetan eskatzaile gisa ere aurkezten da. Horrek barne arazo bat sortzen du.

- Derrigorrezko BEZa ez da aplikatzen festetarako abonoak saltzean (dantzaldiak, zezenketak eta abar), funeraria zerbitzuetan, liburuen salmentan eta abar.

- Kutxako irizpidea erabiltzen da hegaldiengatik tasetatik lorturiko dirusarreretan. Horrek esan nahi du 1996ko aurrekontuan 0,4 milioi pezeta sartu direla 1995 urteari zegozkienak, eta 1996 urtean urte bereko laugarren hilabetea ez kontabilizatzea -0,5 milioi pezeta-.

- Ez da inon ageri bideak konpontzeko kontzeptuan aplikatzen diren tasak.

- Igerilekuetako abonoak eta festetako abono eta sarrerak saltzearen jarraipenean, barne kontrol eza dago. Banku entitateen esku uzten da horien kobrantza, igerilekuetako abonoak (aurretik saltzen direnak) eta festateako abonoak prestatu eta saltzea. Askotan banku-entitateek egiten dituzten kitapenek ez dute agirizko euskarri nahikorik behar diren egiaztapenak egiteko.

Aurretik azaldutakoaren arabera, hona hemen gure gomendioak:

Erroldetan euskarria ez duten tributu dirusarrerak arautuko dituen idatzizko eskuliburua prestatzea.

Errentamenduak ondare dirusarreraren kapitaluan sailkatzea

Hirigintzaren alorrean beste profesional batzuk kontratatzea pertsona bat informatzaile eta informazioa ematen den proiektuko autorearen kasuetan.

BEZa aplikatzea legediak eskatzen dituen ordainagiritan.

Liburuen salerosketarekin eta ehorzlearen ordainketarekin loturiko eragiketak ABILen kontabilizatzea.

Herrilurren errentamendu-kontratuak egin eta horiek artxibatzea.

Bideak konpontzeagatik tasak aplikatzea onepenen multzoarekin batera.

Igerileku, dantzaldi, zezenketa eta abarretarako abono eta sarrerak saldu eta kobratzean barne-kontrol handiagoa ezartzea. Egiaztatuko da zenbat euskarri zenbakidun eman zaizkie banku-entitateei, zenbat saldu diren eta zenbat itzuli diren saldu gabe. Halaber, kontratu bat sinatuko da kontzeptu horiek direla-eta banku-entitateek kontuko ordainketekin batera aurkeztu behar dituzten kitapenen ezaugarriak ezarriko dituen.

VI.6.10. Ohiko transferentziak.

Ohiko transferentziek kitaturiko eskubideen 65,4 milioi pezetako zenbatekoa biltzen dute. Dirusarrera guztien ehuneko 15 egiten dute. Zenbateko horrek kontzeptu hauek biltzen ditu, batez ere: Nafarroako Zergen Partehartze Fondoa, lurralde-erakundeen bestelako ohiko dirulaguntzak eta Estatuko tributuen partehartzea.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren ondokoa ohartu dugu atal honetan:

- Dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean, ez dira bildu 1996an sorturiko zenbait dirusarrera, alegia, 0,5 milioi pezeta.

- Funtzionarioen Montepioa finantziatzeko dirulaguntza, 6 milioi pezeta, funtzionarioen Montepioa finantziatzean gastu gutxiago izatea bezala kontabilizatu da gastuei buruzko 1. kapituluan.

Azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioa:

Funtzionarioen Montepioa finantziatzeko dirulaguntza ohiko transferentzia gisa kontabilizatzea.

VI.6.11. Ondare dirusarrerak.

Ondare dirusarrerek aitorturiko eskubideen 4,5 milioi pezeta egin dute, alegia, dirusarrera guztien ehuneko 1. Banku kontuetan lorturiko korrituak eta makalen salmentan lorturiko korrituak biltzen dituzte.

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren, ondokoa egiaztatu ahal izan dugu:

- Txosten honetako V.V.II.2. puntuan aipatzen den bezala, errentamenduengatik dirusarrerak kapitulu honetan sailkatu beharko lirake.

- Zenbait banku-entitatek ehuneko 25eko kontuko atxikipena egiten dute PFEZaren kargura.

- Garrantzi handirik gabeko aldeak daude eragiketarako banku-entitateetako korrituak direla-eta agertzen duten mozketaren desegokiarengatik eta makalen enkatean lorturiko produktua kontabilizatzean dauden 10,2 milioi pezetaengatik.

- Udalak uste du makalen salmentarengatik ez dela BEZa ordaindu behar. Aplikatzekoa den arauaren arabera, salmenta eragiketa horiek kargatu egin behar dira, gutxienez Nekazaritzako Araubide Bereziari dagokion ehuneko 4arekin, nahiz eta entitateak BEZa ordaindu beharreko bestelako eragiketak egiten dituzenez aplikatu beharreko tasa ehuneko 16koa den.

- Igerilekuak bi ekitalditarako eman ziren errentan 0,4 milioi pezetatan. 1996an ez da inongo dirusarrerarik ageri kontzeptu horrengatik.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona hemen gure gomendioak:

Kapitulu honetan kontabilizatzea 3. kapituluaren kontabilizaturiko errentamenduengatik dirusarrerak.

PFEZaren kontuko atxikipena bidezkoa den ala ez zehatz argitzea.

Udalak edo bestela Ekonomi eta Ogasun Departamentuak uste badute makalen enkantearren ondorioz izan diren dirusarrei aplikatu behar zaien tasa Araubide Orokorreko ehuneko 16 dela, udalak kobraturikoak barne du BEZa hori; beraz, kuota horiek, alegia 2 milioi pezeta, kontatu behar ditu.

Aitorturiko eskubide gisa kontabilizatzea igerilekuen errentamendua, haren kobraketa alde batera utzita.

VI.6.12. Inbertsio errealak besterentzea.

12,8 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute, alegia, kitaturiko eskubideen ehuneko 3. kapitulu honetan sartzen dira udal ondareko elementuen besterentzea, hala nola udal industrialdeko lurzatiak, hilerriko nitxoak eta lurzatiak eta udal lurretako zenbait lurzati ere.

Gure azterketaren ondorioz, ondokoa jarri da agerian:

- Udal industrialdeko lurzatiak eta udalaren lurzatiak salmentan BEZarekin egiten diren arren, zerga hori ez da gero ABILen kontabilizatzen: aurrekontuan kitatzen diren dirusarreen parte bat da eta horrek esan nahi du 1,6 milioi pezetako gehikuntza dagoela. Udal industrialdea eraikitzeko jasandako BEZa bere egunean kasuan kasuko aurrekontuetan sartu zen.

- Hilerriko nitxo eta lurzatiak salmentak, 1,3 milioi pezeta egiten dutenak, behar den BEZa aplikatu gabe egin dira.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoari jarraituz, hona hemen gure gomendioak:

Udalak BEZaren kobrantzan duen papera Nafarroako Gobernuarentzat ari den dirubiltzaile hutsarena da. Beraz, BEZa behar bezala kontabilizatzeko ABILak erabili behar dira.

Nitxo eta lurzatiak salmentan BEZaren ehuneko 16 sartu behar da eta hori ABILen liburuan jaso; gero Foru Ogasunarekin kitatuko dira zenbait horiek.

VI.6.13. Kapital transferentziak

Kapital transferentziak 15,8 milioi pezeta egiten dute, hau da, dirusarrera guztien ehuneko hiru; obrak egiteko dirulaguntzak, INEMen dirulaguntzak, ureztalurretarako dirulaguntzak, makalak landatzeko laguntzak, oinarriko gizarte zerbitzuak eta Arte eta Kultura biltzen biltzen dituzte. Hona hemen dirulaguntza horiei buruzko zenbait xehetasun, mila pezetakotan emanak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
INEMen laguntzarekin egindako obrak	1.805
Makalak landatzea	2.700
Arte eta Kultura	267
Oinarriko gizarte zerbitzua	636
Ikastetxeko gimnasioa eta leihoak berritzeko obrak	5.102
Zeharkaleko lanak eta espaloiak	4.261
Guztira	14.771

Dirulaguntza guztiak eman ziren helbururako erabili dira.

Atal honetan esan behar dugu muga batzuk daudela, izan ere ez baitaie zirkular guztiei erantzun, nahiz eta kontabilizaturiko dirulaguntza guztiak jasotako erantzunekin alderatu diren.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, ondokoa egiaztatu ahal izan dugu:

Dirusarreen aurrekontuaren kitapenean ez dira sartu 1996ko ekitaldian sorturiko 1,8 milioi pezetako dirusarrerak.

VI.6.14. Finantza-pasiboen aldaketak.

Kitaturiko eskubideek, guztira, 234 milioi pezeta egiten dute, hau da aitorturiko dirusarrera guztien ehuneko 54.

Gastuen aurrekontuan aipatzen den bezala, guztizkoa banku-entitateekiko maileguen birfinantziarioei dagokie, izan ere udal industrialdea finantziatzeko erabili ziren haiena. Ekitaldian ez da zor berririk sortu.

Alor honi buruzko iruzkinak txosten honetako VI.6.1.6. atalean sartu dira, gastuen finantza-pasi-boen aldaketei buruzkoan.

VI.6.15. Dirusarrerren erresultak

1996ko abenduaren 31n, dirusarrerren erresulten zenbatekoak 15,8 milioi pezeta egiten zuen. Hona hemen haiei buruzko zenbait xehetasun, mila pezetakoetan emanak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Dirubilketa agentearen esku dauden 1995 urtea baino lehenagoko beranketa	4.796
1995eko beranketa	1.509
1996ko beranketa	3.273
Ohiko transferentziak	1.280
Ondare dirusarrerak	0
Inbertsio errealeen besterentzea	464
Kapital transferentziak	4.440
Guztira	15.762

Ez zaie zirkularrik bidali dirubilketako agenteari entregatu ez zaizkien tributu-zordunei ez eta inbertsio errealeen besterentzearekin loturiko zordunei, partikularrak direlako.

Hiruhilekoan behin dirubilketako agenteak egindako likidazioak egiaztatu dira, eta egokiak dira.

Halaber, zirkularren erantzunekin alderatu dira ohiko transferentzien eta kapital transferentzien erresulten saldoak.

Badaude zordunen banan banako zerrendak.

1996an sortu eta urte horretako aurrekontuko kitapenean sartu ez ziren dirusarreretan egindako doiketen ondorioz, dirusarrerren erresultak aldatuko ziren, ondotik mila pezetakoetan azaltzen den bezala:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Tasas y otros ingresos	525
Ohiko transferentziak	454
Ondare dirusarrerak	10.607
Kapital transferentziak	1.788
Guztira	13.374

Tributu zorretako berankorren (horiek dira erresultak osatzen dituzten saldo zahar bakarrak) kudeaketari buruz egindako adierazpenak eta gomendioak Zerga-dirusarrerren atalean azaldu dira.

VI.6.16. Diruzaintza

Hona hemen diruzaintzako xehetasun batzuk, mila pezetakoetan emanak:

Kontzeptua	Hasierako izakinak	Sarrerak	Irteerak	Amaierako izakinak
Aurrekontu orokor bakarra	8.549	411.427	424.307	-4.331
Aurrekontua, guztira	8.549	411.427	424.307	-4.331
Baloreak eskudiruan	1.166	4.927	5.182	911
ABILa, guztira.	1.166	4.927	5.182	911
Guztira	9.715	416.354	429.489	-3.420

Saldo horiek honela banatzen dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diruzaintza	34
Banku entitateak	-2.156
Nafarroako Gobernuaren Banaketa-kontua	-1.298
Guztira	-3.420

Banku kontuetako zorpekoak ia berariazko baimenik egon gabe ere gertatzen dira.

Badago banku-kontu bat, 1996ko abenduaren 31n 0,2 milioi pezeta dituena. Haren titularra udala da eta ez da Udal Diruzaintzan ageri. Kontu horretan, Dirubilketako agenteak egiten dituen kobrantzak sartzen ditu; hiruhilekoan behin kitapena egin ahala kontu horretako diruak udalaren beste banku kontuetara aldatzen dira, horiek bai Diruzaintzan sartuta. Badago beste banku-kontu bat, udalarena ere, 0,1 milioi pezeta dituena, hori ere Diruzaintzan ageri ez dena.

Azaldutakoaren arabera, hona hemen gure gomendioak:

Izakinak gainditzen dituzten fondoak eskuratzeko berariazko baimena behar da; Osoko Bilkurari Diruzaintzaren egoeraren eta horren arrazoien berri eman behar zaio.

Udala titular den banku-kontu guztiak udalaren Diruzaintzaren egoeran sartzea.

VI.6.17. Aurrekontuko Balore Independenteen eta Lagungarrien Liburua (ABIL)

ABILen jasoko dira kontabilitatez kanpoko izaera duten eragiketa guztiak eta udalarentzat gas-turik nahiz dirusarrerarik ekartzen ez dutelako aurrekontuan jasotzerik ez dauden balore edo fondo guztiak, hain zuzen ere udala dirubiltzaile edo diruzain hutsa delako.

Hona hemen, mila pezetakoetan, ABIL liburuan kontabilizaturiko kontzeptuak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
H.P. PFEZaren zordunak	513
ASUE	24
Gizarte Segurantzak	0
Funtzionarioen montepioak	22
Fidantzak eta gordailuak	353
Guztira	912

Egindako lanari jarraituz, ondoko iruzkinak egin daitezke:

Aurretik transkribaturiko saldoek ez dituzte barne hartzen 1996ko abenduaren nominetan eta Eguberriko aparteko soldatetan egindako atxikipenak, izan ere urtarrilean ordaintzen direnez, urtarrilean aldatu baitziren ABIL liburuan. Dena den, haien aldatzea eta ordaintzea egiaztatu da.

ABIL liburua ez da erabiltzen BEZa kontabilizatzeko. Zerga horren 1996ko abenduaren 31ko aitortpen-kitapenaren arabera, entitatearen aldeko 13,1 milioi pezetako saldoa du. Zerga hori derrigorrezkoa den eragiketa guztietan aplikatu ez denez, ezin dugu benetako datu bezala hartu. Ondasun errealeen besterentzeagatik Dirusarreen kapituluak aipatu dugun bezala, kapitulu horretan jasanarazitako BEZari dagokion 1,6 milioi pezetako zenbatekoa sartu da.

VI.6.18. Hirigintza

Udala 1982ko irailaren 23ko Arau Subsidiarioak berraztertzen ari da, hain zuzen ere Lurraldea-

ren Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritakora egokitzeko. Laster batean jendaurrean jarriko da aldaketa hori.

Udalak ez du sortu Lurzoruaren Udal Patronatua.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera, gogorazi nahi dugu Lurzoruaren Udal Ondarea eratu behar dela eta bertan sartu behar direla hirigintza planeamenduak lurzoru urbanizagarri edo lurzoru urbanizagarri programatu gisa sailkaturiko ondareko ondasun guztiak. Edozein kasutan ere, Ondare horretan sartuko dira lagapenen –lurzoruak edo eskudirua–, edozein modutako desjabetzaren eta tanteatze eta atzera-eskuratzearen ondorioz eskuratutako ondasun guztiak.

Landa eta hirigintzako ondasun komunalei eta ondare-ondasunei buruzko Udal Ondarearen inbentarioa 1991n burutu zen; geroztik ez da eguneratu

Gure gomendioa da udal ondare osoari buruzko inbentarioa egitea, bai eta hori kontrolatzeko sistema bat ezartzea ere, Jabetzaren Erregistroan eta Lurralde Aberastasunaren artxiboetan dauden datuekin behar den alderaketa eginez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín


ERANSKINAK**1. ERANSKINA. FINANTZA-PASIBOEN AZALPENA (DOITUA).**

Entitatea	Xedea	Hasierako zenbatekoa	Interes tasa	Mugaegunaren azken urtea	PFEZaren saldoa 96-12-31n
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Udal Industriald. birfinantziazioa	83.333.334	%11,87	2014	0
Iruñeko Kutxa	Udal Industriald. birfinantziazioa	83.333.334	%11,32	2014	0
Caja Rural	Udal Industriald. birfinantziazioa	83.333.334	%11,58	2014	3.632.614
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Udal Industriald. birfinantziazioa	75.000.000	MIBOR+1,5	2006	75.000.000
Iruñeko Kutxa	Udal Industriald. birfinantziazioa	79.000.000	MIBOR+1,6	2006	79.000.000
Caja Rural	Udal Industriald. birfinantziazioa	80.000.000	MIBOR+1,7	2006	80.000.000
Nafarroako Gobernua	Udal Industrialdea	88.689.366	%0	2000	35.475.744
Nafarroako Gobernua	Udal Industrialdea	184.446.345	%0	2002	110.667.809
Nafarroako Gobernua	U.I. 1996an mugaeguneratua		Berant %9	1996	8.868.937
Nafarroako Gobernua	U.I. 1997an mugaeguneratua		Berant %9	1996	18.444.634
Nafarroako Gobernua	Udal Industriald. birfinantziazioa	27.000.000	%0	2005	24.300.000
Nafarroako Gobernua	Udal Industriald. birfinantziazioa	27.800.000	%0	2006	27.800.000
Nafarroako Gobernua	Birlandak. mailegu. saldoa (*)	14.767.972	%0	Mugaeguneki gabe	14.767.972
Nafarroako Gobernua	81 baino leh., Azpieg. Elek. (**)	2.816.000	%0	Mugaeguneki gabe	2.816.000
Guztira		662.853.017			480.773.710

(*) Birlandaketak egiteko maileguaren saldoa: Birlandaketak egiteagatik zorra, 1996ko irailaren 3an Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. enpresak doitua, Nafarroako Gobernuak enkargua emanda, beti ere Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legea aplikatzeko.

Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Departamentuaren arabera, zor hori 33.688.841 pezetakoa da.

(**) Korriturik gabeko diru-aurrerakina, azpiegitura elektrikoa egiteko, Nafarroako Gobernuaren Industri Departamentuak 82-04-21ean emana eta dirua itzultzeko egutegirik ageri ez duena.

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1996KO ABENDUAREN 31N.

3. ERANSKINA. EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERAREN AZTERKETA

1996KO ABENDUAREN 31KO EKONOMIA-EGOERA

	Mila pezetatan	Mila pezetatan
Zorraren egoera 96-12-31n (ez dira sartu oihan birlandaketak egiteko eta azpiegitura elektrikoetarako maileguak, mugaegun jakinik gabekoa direlako)	-463.190	-463.190
Entitateak besterendu daitezkeen ondoko ondasunak dauzka		
• 40.000 m ² Udal Industrialdeko lurzatieta. Kontuen Ganbarako 1990eko auditoretzaren arabera 4.444 pta/m ² prezioa dutenak. Beraz:	177.760	
46.000 m ² Udal Abeltzaintza Aldean, entitateak jarritako prezioan, hau da 300 pta/m ² . Beraz:	13.800	
Lurzatiak, guztira	191.560	
Eraikuntza akatsengatik, egokitze lanak egin beharra aurreikusi da. Ondoko zenbatekoa beharko da:	-35.000	
U.I. eta U.A.A.ko lurzatiengatik lortu daitekeena.	156.560	156.560
Defizit ekonomikoa 96-12-31n:		-306.630

HURBILPEN BAT 1997KO FINANTZA-EGOE-RARA.

Hasierako gaiak:

- Udalaren 1997ko aurrekontua ez da egin; beraz, onetsi gabe dago.

- 1997ko kalkuluak egiteko 1996ko betetako aurrekontuaren zenbatekoak hartu ditugu, betiere ondokoak aintzat hartuta:

Hiri kontribuzioaren ehunekoak 1996an 0,64 izatetik 1997an 0,75 izatera pasa dira.

1997an I.A.E. izaneko zergak lizentzia fiskala ordeztu badu ere, ez da hori aintzat hartu, izan ere kontzeptu hori dela-eta 1997rako aurreikus daitezkeen dirusarrerak proiektatzen zailak direlako.

1997rako aurreikusitako finantza karga

Kontzeptua	Pezetak
Bankuetako eta Banaketa-kontuko zorpekoak (96-12-31n)	4.331
Mugaeguneraturiko urtekoak, 1996an ordaindu ez zirenak.	27.312
1997an mugaeguneratuko diren urtekoak	70.592
Maileguen korrituak	19.875
Guztira	122.110

1997rako aurreikusi diren dirusarrerak (landa- eta hiri-kontribuzioa soilik)

1996an ondoko ehunekoak aplikatuko dira kontribuzioan:

Kontzeptua	%	Zenbatekoa
Landa-kontrib.	0,64	5.134
Hiri-kontrib.	0,4	29.500
Guztira		34.634

Onetsitakoak 1997an aplikatuz gero, emaitza hauek izanen ditugu:

Kontzeptua	%	Zenbatekoa
Landa-kontrib.	0,75	6.016
Hiri-kontrib.	0,45	33.188
Guztira		39.204

Ondorioak

Ekonomikoak

Besterendu daitezkeen ondasunen balioa behar dena baino 306 milioi pezeta gutxiago izanik, alde hori (lurzatiak ez badira aurreikusitakoa baino garestiago saltzen) udalaren ohiko baliabi-deekin ordaindu beharko da.

*Finantzarioak*Kontzeptua

1997rako aurreikusitako finantza-karga	122.110
1997rako aurreikusi diren dirusarrerak (maileguen birfinantziak eta kapital transferentziak kenduta)	191.537
Ohiko gastuetarako gainerako dirusarrerak	69.427
1997rako aurreikusitako ohiko gastuak	109.147
1997rako aurreikusitako defizita	-39.720

Ikusirik besterendu daitezkeen ondasunen balioaren eta haien finantziatzeko hartutako zorren arteko alde negatiboa (306 milioi pezeta), 1997an lurzatiaren salmentaren bidez ekitaldi horren aurrekontu-defizita orekatzeko adina dirusarrera eskuratuta ere, dirusarrek ez dute entitatearen ekonomia-egoera orekatzeko biderik ematen.

Entitatearen 1996ko aurrezki garbia negatiboa da, bai eta zorpetzeko gaitasuna ere, eta gaitasun hori aise gaindituta dago.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--